

## Aisialdia

Landaederrako aterpea herritarrentzako zabalduko du Durangoko Udalak > 18



## Geu Be, 10 urteko bizipenak ama-semeen ikuspuntutik

Carmen Gerrikagoitia eta Oier Domarco ama-semeak buru-belarri ari dira 10. urtemugako egitaraua prestatzen, Geu Be elkarteko gainerako kideen legez. Elkartean izan duten esperientzia azaldu dute > 3



## Durangoko larrialdietako beharginek ez dute bat egin sailburuak emandako arrazoiekin > 3

Larrialdietan dagoen arazoa "laneko giroa" dela azaldu zuen Antonio Arraiza sailburuak legebiltzarrean

Astelehenean, Durangoko larrialdietako egoera landu zuten legebiltzarreko Osasun batzordean. Beste hainbat neurriren artean, lantaldea handitzeko eskatzen dute beharginek. EH Bilduko Rebeka Uberak egin zuen gaia lantzeko eskaera. Antonio Arraiza sailburuak adierazi zuen arazoa lantaldeko

giro txarra dela. Adierazpen horri erantzun diote langileek. "Inondik inora. Euren arazoa hori da. Denok finakoak garela eta oso ondo konpontzen garela elkarregaz". Medikuko bakoitzeko erizain bat izatea eta anbulantzia medikalizatu bat izatea dira langileen eskaera nagusiak.

- BATXILERGOA
- GOI MAILAKO ZIKLOA
- HAUR HEZKUNTZAKO TEKNIKARIA

HOBETUZ IKASTAROAK

Intxaurren, 54 Durango • Tel.: 94-621 58 77 • 48200 Bizkaia  
www.ibaizabalikastola.org • idazkaritza@ibaizabalikastola.org

 **ibaizabal**  
IKASTOLA

AURREMATRIKULA  
Haur Hezkuntzako Goi Mailako zikloan  
Maiatzaren 27tik ekainaren 7ra

  
ikastolenelkartea

### Iurreta > 2

McDonald's-ek jatetxea eraikitzeke lizentzia lortu du

### Elorrio > 4

Elorrioko kofradiak ezagutzeko erakusketa zabaldu dute Iturrin

### Otxandio > 6

Autobus zerbitzu publikoa eskatu diete aldundiei

### Zaldibar > 8

Euskara Plana egin dutenei esker ona adierazi diete

# Herririk herri

## > IURRETA

### Bideak zuzen seinalatzeko eskatu diote Aldundiari

#### >AITZIBER BASAURI

Bideak zuzen seinalatzeko dio Iurretako Udalak Bizkaiko Foru Aldundiari. Bizikletariekin sortutako arazoak arduratuta aurkeztu du mozioa PPK, eta aho batez onartu dute azken udalbatzarrean. Bidegorri sarea hobetzeko udalak “bultzanda handia” eman duen arren, errepideetan ere neurriak hartu behar direla uste du PPK. Bide bazterreko barandak zirkulazio araudi berrira egokitzeko PSE-EEren eskaria ere jaso dute idatzian.

EAJ, PSE-EE eta Bildu bat etorri dira edukiagaz. Hala ere, Bilduren ustetan mozioa “apur bat hutsa” da, “ez delako neurri posiblerik zehazten”, nabarmendu dute.

### Sanmigeletako kartel lehiaketa jarri du martxan jai bartzordeak

#### > A.B.

San Migel jaietarako kartel lehiaketa abiatu du jai bartzordeak. Ekainaren 14ra arte aurkeztu daitezke luma papelean inprimatutako kartelak eta CDak, Ibarretxe kultur etxean. Irabazleak 500 euro lortuko ditu.

Azken erabakia herritarren esku egongo da: ekainaren 18tik 23ra, kultur etxean ipiniko dituzte lan guztiak eta botoa eman ahal izango dute. Sari bako lanak hilaren 25etik 30era egongo dira ikusgai. Lehiaketaren oinarriak, Ibarretxe kultur etxean.

## Zeresana sortu du Durangaldean McDonald's enpresaren etorrerak

Eraikitze obrak hasi ahal izateko udalaren baimena badauka enpresak



Ertzilla industriagunean eraikiko du jatetxea McDonald's enpresak.

#### > J.G. / J.D.

Durangaldera ere ailegatu da McDonald's janari lasterreko enpresa. Iurretan jarri gura dute jatetxea, eta McAuto 24 orduko zerbitzua ere izango du, jakin eragin dutenez. Ertzilla industriagunean eraikiko duten McDonald's jatetxe berriak zeresana sortu du herritarren artean.

Begi onez ikusi dute hainbat iurretarek konpainia estatubatuarren etorrera. Badago enplegua sortuko duela pentsatzen duenik, eta Durangaldeko askok janari lasterreko horrelako ja-

tetxeetara joateko ohitura duela uste duenik ere bai. Hala eta guztiz ere, badago kontrako iritzirik ere, mota horretako jatetxe batek eskualdean izan dezakeen harre-  
ra zalantzan jarrita.

#### Hiru hilabete lanak hasteko

Iritziak iritzi, Iñaki Totorikagena alkateak argitu duenez, Iurretako Udalak eman dio dagoeneko obrak hasteko baimena enpresa estatubatuarri. Orain, janari lasterreko konpainiak hiru hilabeteko epea du eraikitze obrak hasteko, alkateak gaineratu duenez.

Ertzilla industriagunean ipiniko du jatetxe berria McDonald's enpresak, errepidearen ondoan. Horretaz gainera, 24 ordu zabalik egongo den McAuto zerbitzua ere eskaini gura dute, janaria kotxetik irten barik har-  
tzeke aukera emateko.

### > Zer deritzozu iurretan McDonald's bat jartzeari?



Denis Fernández (Berriz)

“Ondo dagoela uste dut. Bilbo inguruan badaude, baina urrun samar gertzen dira. Ni ez naiz askorik joaten, hilean behin edo, baina bezeroak izango dituela pentsatzen dut”.



Marisol Pelaz (Iurreta)

“Gaur egungo krisiagaz eta langabeziagaz, ikusi egin beharko da jendea doan ala ez. Gu ez gara zaleak; udan, inoiz, jana prestatzeko gogorik ez dugunean, baina bestela ez”.



Antonio Rodríguez (Durango)

“Durango herri handia da, eta behar zuen horrelako zerbait. Nik eskatzen dudana da, McDonald's-eko langileak bertakoak izatea. Horrela lana sortzen lagunduko luke”.



Ainara Mancisidor (Durango)

“Ez dut txarto ikusten, gaur egun, askok halako janariak jateko ohitura dutelako. Ikusten dudana da, lana ekarriko duela Durangaldeko jendearentzat, eta hori positiboa da”.

## > MAÑARIA

### Domekako azokagaz amaituko dute Aste Kulturala

Landareak nobedade izango dira azokan

#### > MARKEL ONAINDIA

Domekan amaituko da Mañariko Aste Kulturala. Joan zen asteburuan hasi zuten egitaraua, eta domeka honetan emango diote

amaiera XVIII. Artisanu, Elikadura eta Landare Azokagaz. Bertan, ahuntz azpigorriak izan ohi dira protagonista; aurtengorako, baina, lehiaketa beha-

rrean, erakusketa eratu dute. Ainara Areitio zinegotziak esan du, modu horretan udalak dirua aurreztu gura duela.

Landareak nobedade izango dira, eta nekazari gazteak ere bai. Izan ere, EHNERen bidez, inguruko nekazari gazteekin hartu-emanetan ipini dira. Guztien artean postu bat ipiniko dute azokan. Areitioek esan du “nekazari gazteei bidea zabaltzea” gu-

ra dutela. 11:00etatik 14:00etara egingo dute azoka. Pastelak, trufak, ogiak eta gaztak ere egongo dira salgai.

#### Gaur, bertso afaria

Gaur eta bihar ere egongo dira ekintzak Aste Kulturalaren barruan. Gaur, 20:00etan, bertso afaria egingo dute, eta bihar, abesbatzaren kontzertua, 21:00etan.

**IURRETA INSTITUTUA**  
Tel.: 94 466 88 00  
www.iurreta-institutua.net

**AURREMATRIKULAZIOA**  
Maiatzaren 27tik  
ekainaren 7ra

ARRETA SOZIOSANITARIOA  
FABRIKAZIO MEKANIKOA  
INFORMATIKA  
ELEKTRONIKA  
ADMINISTRAZIOA  
AUTOMOZIOA

HEREZI DU GUREKIN BIDAIAZTEA

**> DURANGO**

# Gerrikagoitia: “Geu Be guztia da guretzat, gazteentzako ere guztia delako”

Geu Beren 10. urtemugaren harira, Gerrikagoitiak eta Domarcok euren esperientzia azaldu dute

**> MARKEL ONAINDIA**

Geu Beko atea zabaldu eta jende ugari ageri da eztabaidan edo eskulanean, 10. urtemugako ekitaldiak prestatzen. Bertan dira Carmen Gerrikagoitia eta Oier Domarco ama-emeak. Hasieratik ezagutzen du elkarte semeak, ama bultzatzaileetako bat izan zen-eta. Durangaldeko ezindua intelektualek familien elkarte da Geu Be. 30 urte dauzka Oierrek, bere amak borroka egiten damamatzanak beste: “Oier ondo jaio zen. 21 egunera meningitisak jo zuen, eta horrek ondorioa utzi zion. Garrantzitsuena da, arazoa lehenengo egunetik onartzea. Errehabilitazioa, estimulazioa, ez dakit nora joan behar dela, mugitzea, psikologoak, logo-

pedak, igeriketa... Mugitu egin behar dira, aktibatu. Pauso bat lortzea asko kostatzen da, eta konstantea izan behar da”.

Hogei urtegez, hezkuntzako zikloa amaitu eta zereginik barrik geratu zen Oier. Beste hiru familiagaz batera, mugitzen hasi ziren. Eguneke zentroa eskatzen zuten, eta Zornotzan egin zieten lekua. Baina, Alkartasunako begirale ziren Gontzal Uriarte eta Jose Alfarogaz topo egin eta aisialdirako zer edo zer egin behar zutela pentsatzen hasi ziren. Hortik jaio zen elkarte. Gerora ere, bolondresen laguntza eduki dute. Begiraleez berba egitean, emozionatu egin da ama: “Familiak ez ginen hemen egongo bolondresik barik. Hori oso argi daukagu. Ez dago dirurik egiten dabilzana ordaintzeko. Gainera, borondatez, musutruk”.

Gazteek pausoak eman ditzaten, euren garapenean etenik egon ez dadin egiten dute lan Geu Ben. Gazteentzako beharrian bat dela dio Gerrikagoitiak: “Elkargune bat da, koadrilarako erreferentzia bat. Irtetean, ez

Gazteek pausoak eman ditzaten, euren garapenean etenik egon ez dadin egiten dute lan Geu Ben

## Larrialdietako langileek ez dute bat egin sailburuaren arazoekin

Larrialdietako egoera landu zuten legebiltzarrean; sailburuak esan zuen laneko giroan dagoela arazoa

**> M. O.**

Astehenean, Durangoko larrialdietako -arreta jarraiturako gunea- egoera landu zuten legebiltzarreko Osasun batzordean. Beste hainbat eskaeren artean, lantaldea handitzea gura dute beharginek. Ohartarazi dute lan karga handitu egin dela azken urteetan, baina taldea ez dela handitu. EH Bilduko Rebeka Uberak egin zuen gaia lantzeko eskaera, eta Antonio Arraiza Osasun sailburuak erantzun zuen. Adierazi zuen arazoa lantaldeko giro txarra dela, langile kopuru horregaz zerbitzua betetzen dela. Horri erantzun diote beharginek: “Inondik inora. Euren arazoa hori da, denok finkoak garela, eta oso ondo konpontzen garela elkarregaz. Lan baldintzak oso gogorak dira, eta horrek ere lotura bat sortzen du”. Esan dute, mediku bakoitzak erizain bat beharko lukeela,

eta bakarra dagoela. Gainera, kanpora irtetzean erizaina joan behar izaten da, eta anbulategian ez da erizainik geratzen.

Beste eskaera nagusi bat anbulantzia medikalizatuarena izan da, Zaintza Intentsiboko Unitateduna. Gernikatik etortzen da Durangora. Arraizak esan zuen erizain bat ipiniko dutela. “Hori ez da ZIU mugikorra. Hemen, erizaina eta medikua joaten dira, eta anbulantzia oso ondo prestatuta dago, guztiz desberdina da”, diote beharginek.

Arraizak formazioa eta Gal-dakaoko ospitaleagaz bideokonferentziak egitea proposatu ditu hobekuntza legez. Beharginek ez dute txarto ikusten, baina ez dute uste horiek benetako arazoa konponduko dutenik. Gainera, adierazi dute jada heziak daudela eta uneoro daudela ikasten. Sinadurak batzen dabilza, eta dagoeneko 2.000tik gora dauzkate.



Oier Domarco eta Carmen Gerrikagoitia ama-emeak, Geu Beko egoitzan, Garai jauregian.

dute gugaz etorri nahi, euren espazioa gura dute”. Barrenetik egin du berba: “Geu Be guztia da guretzat, gazteentzako ere guztia delako”. Gainera, gurasoentzako ihesbide bat dela uste du.

Geu Ben etxean baino hobeto dabilela aitortu du Oierrek: “Bideojokoetan jolasten ibiltzen naiz, ordenagailuan, marrazten, musika entzuten... Barikuetan, batzarra egiten dugu, zer egin pentsatzeko”. Lagun asko egin ditu bertan, eta begiraleekin ere ondo konpontzen da. Gazteak ere badabilza urtemuga antolatzen: “Pankartak margotzen ibili gara, bertso saioan ipintzeko”. Jende guztia gonbidatu du ospakizunera: “Nik kontzertua ikusiko dut, bertsoak, eta bazkarian eta triki-poteoan ere egongo naiz”.

## EGITARUA

**Maiatzak 18**

10:00. Futbito egokitua, Landakon.

17:00. Saskibaloia gurpildun aulkian, Ezkurdin.

**Maiatzak 19**

09:00. Urritasunaren inguruko ibilbidea.

Zaldibar, Berriz eta Elorriotik irteerak.

11:00-12:00. Luntxa, Astolan.

13:00. Argazkia, egoitzan.

17:00. Esku pilota, Iurretan.

**Maiatzak 22**

19:00. Berbaldia San Agustinen.

**Maiatzak 24**

18:30. Tortilla txapelketa, Andra Marin.

21:00. Bertso saioa, Andra Marin: Iturriaga, Elortza, Enbeita eta Ugartetxea.

**Maiatzak 25**

Landako Gunean:

10:00. Herri kirolak eta jolasak.

12:30. Txan magoa.

14:15. Bazkari herrikoia.

18:00. Dantza erakustaldia.

20:00. Triki-poteoa

Plateruenean:

22:00. Kontzertuak: Motxila 21,

The Autistix eta Jare.

**> MALLABIA**

## Nekazaritza azoka eta abere erakusketa domekarako

**> JONE GUENETXEA**

Kultur Hamabostaldiaren bigarren asteburuan, Mendibil eta Jasokunde abesbatzek Ermuko Pispilu eta Alboka musika eskolako bandagaz kontzertua eskainiko dute elizan, gaur, 20:30ean. Ondoren, Gaizka Aranguren (Ernai elkarte) *Identitario kolektibo*a berbaldia eskainiko du. Zapaturako, mendi lasterketa herrikoia, bazkari autogestio-natua, Txan magoaren emanaldia eta truke azoka prestatu dituzte.

Domekako azokan 13 postu ipiniko dituzte frontoian: Mallabiko baserritarrenak sei eta artisauenak hiru. Mallabitik kanpoko ekoizleak ere etorriko dira. Parkean, herriko animalien erakusketa izango da. 13:00etan argazki digitalen lehiaketako sariak banatuko dituzte. Orraitiok txosna jarriko du frontoian.



# hitz

liburudenda

artekalea 14 durango 94 681 07 76

info@hitzliburudenda.com

**> ATXONDO****Bihar, jubilatuen tabernako inaugurazioa egingo dute****> JOSEBA DERTEANO**

Bihar, etapa berria hasiko du jubilatuen tabernak. Hiru hilabete eta erdian itxita egon ostean, jabe berriak, Itsaso Esteban atxondarrak, inaugurazio ekitaldia egingo 18:00etatik 19:00etara. Herritar guztiak gonbidatuta daude, eta jana eta edana banatuko dituzte bertaraten diren guztien artean. Datorren astetik aurrera, egunero egongo da zabalik; astelehenetik domekara, gaueko 22:00 arte.

**Otsailaren 4tik itxita**

Jubilatuen taberna itxita egon da otsailaren 4tik. Taberna ordua arte -13 urtez- eduki zuen pertsonak utzi egin zuen, azken urteetan galerak izan zituelako eta ez zelako errentagarria. Ondorioz, udalak baldintza orri berria prestatu eta lehiaketara atera zuen jubilatuen tabernako kudeaketaren esleipena.

**> ELORRIO****Elorrioko historian sakontzeko aukera, kofradiak ezagututa**

Astelehenetik, Iturri kultur etxean ikusgai dago Elorrioko kofradien inguruko erakusketa

**> MARKEL ONAINDIA**

Hausnartzeko gonbidapen bat. Horrela aurkeztu zuen Jesus Muñizek Iturri kultur etxean ikusgai dagoen erakusketa berria. Elorrioko kofradien inguruko da, historian atzera egin eta herriaz gehiago jakiteko aukera eskaintzen duena. Udalak eta Bizkaiko Eleiz Museoak sustatu dute. Museo horretakoa da Muñiz, eta Raquel Cillagaz batera prestatu du erakusketa. Astelehenean inauguratu zuten, eta hainbat herritarren aurrean eman zituzten azalpenak.

Muñizek adierazi zuen, besteak beste, Argiñetako indusketen harira otu zitzaiea erakusketa egitea. Gune arkeologikoan topatutako aztarnek diote 800 eta 1100 urteen artean

bazirela biztanleak; komunitate horietan sortu ziren kofradiak, Erdi Aroan, baina ez dakite seguru noiz. Izan ere, kofradien inguruko lehenengo dokumentua 1471koa da, salerosketa batena. Ikertzaileen arabera, Gazeta, Miota eta Argiñetan zeuden auzoen antolaketarako kofradiak. Ermiten bueltan sortzen ziren, baina Cillak azaldu zuen, batez ere, funtzio administrati-boa zeukatela. Lurren gestioa, arauak, auzolanak... Gerora, bestelako kofradiak sortu ziren Elorrioren, indar handia hartuko zutenak: erlijioak. XVI. mendean jaio zen lehenengoa, Sor-tzez Garbiaren kofradia.

Hilabetez egongo da zabalik Elorrioko historian murgiltze-ko erakusketa.



Jesus Muñiz, asteleheneko aurkezpenean, azalpenak ematen.

**> DURANGALDEA**

Tabakoaren kontrako irudirik onena egin duten gazteak.

**Tabakoa ez erretzeko deia, ikasleen irudimenetik**

Tabakoaren kontra lan egin dute ikastetxeetan

**> M. O.**

Maiatzaren 31 Tabakorik Gabeko Nazioarteko Eguna da, eta horren harira, *Kerik Gabeko Gelak* programa landu dute sei ikastetxetan, Amankomunazgoko Drogomenpekotasunen

prebentziorako sailak sustatuta. Tabakoaren kontrako irudirik egin dituzte, eta Durangoko Institutuko Ane Grande, Aitor Arkarazo eta Elene Feijoo izan dira garailak. Gazteak tabakismotik prebenitzea da helburua.

**Grebarako deia egin dute sindikatuek eta elkarteek**

Maiatzaren 31n manifestazioak egingo dituzte



Durangoko Santa Ana plazan martitzenean egindako agerraldia.

**> M. O.**

Martitzenean, agerraldia egin zuten Durangoko Santa Ana plazan Durangaldeko greba komitea osatzen duten eragileek, hilaren 30eko greba orokorra aurkezteko. ELA, LAB, EHNE, ESK eta CNT sindikatuek, eta Voces de Africa, Bilgune Feminista, Ernai, AHT Gelditu Elkarlana eta Elorrioko Gaztetxeak osatzen dute, besteak beste, komitea. Greba prestatzeko batzarrak deitu dituzte: Durangon 20an, 19:00etan, Pinondon; Elorrioren 21ean, 19:00etan, Iturri. Hilaren 31n manifestazioak egingo dituzte Durangon eta Elorrioren, 17:30ean. "Izan dadila alternatiba eraikitzeke prozesuari hauspoa emateko eguna", esan dute.

Adierazi dute azken urteetako erreforma, lege eta murrizketek ondorio bi ekarri dituztela: "Aberatsak gero eta aberatsago izatea, eta beharginak pobretzea". Durangaldean langabezia hirukoiztu dela ohartarazi dute, egoeraren ondorioen artean.

**BATXILERGOA****LANBIDE HEZIKETA**

**lea artibai**  
Ikastetxea

*Etorkizuna eraikiz*

94 616 9002


info@leartik.com

Xarein: Elorbidea 19, Markina-Xemein (48270)

www.leartik.com



GEHIAGO JAKIN  
NAHI DUZU?



Hemen, Kafeari Baqué esaten diozu

[www.baque.com](http://www.baque.com)

**> OTXANDIO**

# Autobus zerbitzu publikoa eskatu diete Araba eta Bizkaiko Aldundiei

Erabiltzaileek Durangotik Gasteizerako martxa eratu dute ekain amaierarako



Autobus linearen erabiltzaileak, Otxandioko plazan eskaini zuten prentsurrekoan.

**> JOSEBA DERTEANO**

Durango-Gasteiz autobus linearen Otxandioko erabiltzaileek prentsurrekoa eskaini zuten joan zen barikuan, Alsa konpainiak gaur egun eskaintzen duen zerbitzu eskasa salatu eta Bizkaiko eta Arabako Aldundiei zerbitzu publiko baten aldeko inplikazioa eskatzeko. Aldarrikapen nagusi bi dituzte: linea kudeaketa publikoz gestionatzea Bizkaiko Aldundia inplikatuta, Bizkaibusen bidez, kasurako; eta horrekin batera, kalitatezko zerbitzua bermatzea.

Aldarrikapen horiek aldundi bietara luzatuko dituztela adierazi zuten, eta euren egoera lau haizetara zabaltzeko ekintza bi prestatu dituzte: ekainaren hasieran, Bizkaiko Foru Aldundiak Bilbon duen egoitzaren parean kontzentratuko dira; ekain

amaierako asteburu batean, berriz, Durangotik Gasteizera oinezko martxa bat egiteko asmoa dute. Arabako Aldundiko egoitza aurrean amaituko da martxa.

Durango-Gasteiz autobus linea Arabako Aldundiak 1950ean egindako kontsezioa bat da. Kontsezio mota horren ezaugarri bat da, diru publikorik jaso gabe, enpresak erabateko autonomiaz kudeatu dezakeela: ordutegiak, prezioak... Baina Arabako Aldundiak mugikortasun plan berri bat diseinatuko duenez, eta linea horren kontsezio berria egingo denez, erabiltzaileek euren aldarrikapenak egiteko aprobtxatu dute. "Gure aldarrikapenak ez dira gutuziak. Bigarren mailako herritarrak sentitzen gara", adierazi zuten prentsurrekoan Alaitz Ajuria eta Elena Llona erabiltzaileek.

**> BERRIZ**

# Porrotx eta auzorik auzoko ibilaldia, Elkartasun Asteburuaren barruan

Berrizko Herrirak hainbat ekitaldi antolatu ditu maiatzaren 23tik 25era

**> AMAIA UGALDE**

Datorren egunean hasita, presoeri eta euren senitartekoei elkartasuna adierazteko egitaraua antolatu du Berrizko Herrirak. Zapatuan izango da jai nagusia, goizean auzorik auzoko ibilaldia egiten hasi, eta gauean kontzertuekin amaituta.

Zapatuko jaiaren aurretik, egunean, Porrotxen bisita izango dute gaztetxean, 17:00etan. Barikuan, berriz, bost presoren testigantzak batzen dituen *Barrura begiratzeko leihoak* dokumentala proiektatuko dute kultur etxe zaharrean, 19:00etan.

Zapatuan, Berrizko auzoetatik ibilaldia egingo dute, 08:30ean Olakuetako plazatik irtenda. Hiru ordu eta erdiko txangoa izan-

go da, Andikoan hamaiketako eta guzti. Eguerdian umeentzako jolasak edukiko dituzte Olakuetako plazan, eta 15:00ak aldera, bazkari herrikoian batuko dira.

Bazkariko txartelak maiatzaren 22ra arte erosi daitezke Fondan eta Pedro Juan tabernetan. Txartelak 10 euro balio du;

gaueko kontzertuetarako tiketaz, 12.

Arratsaldean, batukada poitea izango da, eta 20:00etan ekitaldi nagusia hasiko da plazan. Eguna amaitzeko, kontzertua eskainiko dute Hiltegiaren Seiurte eta Zain talde berriztarrek, eta Dj Waha ibiliko da musika ipintzen.

## Zapatu honetan, M18 Plazara ekimenerako deialdia Durangaldean

Herrirak biharko M18 Plazara ekimena antolatu du. Hauek dira eskualdeko hitzorduak:

- **Abadiño:** 20:00etan plazan
- **Atxondo:** gaur, presoen lanen enkantea.
- **Berriz:** 12:00etan biribilgunean.

- **Durango:** 12:15ean Kurutziaigan.
- **Elorrio:** 13:00ean plazan.
- **Iurreta:** 13:00ean Bodeguilla parean.
- **Otxandio:** 13:00ean plazan.
- **Zaldibar:** 13:00ean giza katea, alde zaharretik.

**> ABADIÑO**

lazo San Trokaz jaietako paella lehiaketa.

## 'Maleta siku' bazkaria eta egun osorako plana, bihar

Bizikleta martxagaz ekingo diote jai egitarauari

**> I.E.**

Ohitura berreskuratu zutenean, hirugarren urtez egingo dute bihar *Maleta Siku* bazkari herrikoia, Zelaietako San Trokaz jaietan: etxean prestatu jana bazkalduko dute elkarregaz. Aurreikuspenen

arabera eguraldiak lagunduko ez duen arren, Zelaietan agerikoa izango da jai giroa asteburuan: bizikleta martxagaz ekingo diote egitarauari bihar, eta Uannah taldearen kontzertuagaz itxiko dute asteburuko egitaraua domekan, 19:00etan.

# AURREMATRIKULAZIO DATAK

**• DBH:**

- Gela egonkorra
- Laguntza gelak
- Curriculum anitzak eratzeko programak

**• BATXILERGOAK:**

- Zientziak eta Teknologia (Aukera: eleanitza)
- Giza eta Gizarte Zientziak (Aukera: eleanitza)
- Arteak (Arte plastikoak eta diseinua)

**• ZEREGIN IKASKUNTZARAKO GELA (ZIG)****• HEZIKETA ZIKLOAK**

- Erdi mailako heziketa zikloa: Landa Ingurune Gorpuz eta Kirol Ekintzen Gidaritza (D eredu)
- Goi mailako heziketa zikloa: Gorpuz eta Kirol Ekintzen Sustapena (D eredu)

Frai Juan Zumarraga, 21-23, DURANGO - Tel.: 94 681 77 30-94 681 73 25 - Fax: 94 681 02 58

e-posta: fjzumarraga@euskalnet.net - **www.durangobhi.net**

Heziketa  
Zikloak  
maiazaren 27tik  
ekainaren 7ra

Institutuan,  
jakina!!

IES Frai Juan de Zumarraga - Durango (BI)

**institutua**  
Durango

500  
XZU

jaialdiaren argazkiak. Mila esker guztioi!



# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA



Lanerako Gertu!

## Ate Irekien Jardunaldiak

Maiatzak 25 11:00

## GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

2013-2014

### Eskeintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrial
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrial

[www.mondragon.edu/gmhz](http://www.mondragon.edu/gmhz)  
[gmhz.mgep@mondragon.edu](mailto:gmhz.mgep@mondragon.edu)  
 943 71 21 91



**> DURANGALDEA ASTEON****Merkatu plaza hobeto ezagutzeko jolasa**

Durangoko merkatu plazako nekazariak jolas bat antolatu dute bihar goizerako. Helburua "era umoretsu eta parte-hartzaileen plaza hobeto ezagutaraztea" dela azaldu dute. Jolasean, plano bat ibili beharko dute. Parte-hartzaileen artean sasoiko produktuen otzara bat zozkatuko dute.

**Literatur lehiaketa arrakastatsuko sari banaketa lurretan**

Hamarkada bete du Iurretako literatur lehiaketak eta sari banaketa azpimarratu dutenez, "erreferente" bihurtu da dagoeneko. Ia 400 lan jaso dituzte aurten; ipuinak, bertsoak eta komikiak. Komiki lehiaketa lehenengoz ipini dute martxan, eta antolatzaileen berbetan, "oso harrera ona" izan du.

**Mari Cruz Gazteluiturrik irabazi du 'Salerosketak be euskaraz'eko 4. iPada**

Karmentxu ileapaindegian irten da, 167.518 zenbakiagaz *Salerosketak be euskaraz* ekimeneko azken saria. Mari Cruz Gazteluiturrik irabazi du zozkatutako iPad. ITG Taldearen ekimena da *Salerosketak be euskaraz*, eta Durangoko dendetan erosketak euskaraz egitea bultzatu gura du. Honezkero lau iPad banatu dituzte, eta beste bi zozkatuko dituzte irailera bitartean. Hurrengo zozketa uztailearen leian izango da.

**> ZALDIBAR****Euskara Plana egiten parte hartu dutenak eskertzeko ekitaldia**

Euskara Planaren aurkezpena egin dute; plana diseinatzen lagundu dutenak eskertu dituzte

**> ITSASO ESTEBAN**

Euskara Plana diseinatzeko irailan eta urrian egin zituzten bi herri batzarretan euren iritzi, ideia eta esperientziak partekatuz zituzten 20 herritarrek gonbidatu berezi izan ziren eguaztenean udaletxean egindako ekitaldian, eta esker ona adierazteko, oroigarri bana eman zieten.

Euskara bultzatzeko ildo estrategikoak markatzen ditu udalak otsailean aho batez onartu eta eguaztenean jendaurrean

aurkeztu zuten planak: 2013 eta 2016 urteei begira osaturiko planaren oinarri nagusiak azaldu zituzten, eta luntxa eta abesbatzaren emanaldia ere izan ziren, besteak beste, ekitaldian.

Laster Euskararen Aholku Batzordea eratu dute, euskararen normalizazioan indar egiteko, eta ildo estrategikoak garatzeko pausoak zehazteko. Euskara bultzatzeko lanerako gogotsu dauden zaldibartarrak batuko dira bertan.



Eguazten iluntzean udaletxe atarian egin zuten aurkezpen ekitaldia. D.Zubizarreta

**Soberakina inbertsioetara bideratu gura du EH Bilduk**

Bizkaiko Batzar Nagusietan aurkeztu dute "udalen aurrekontu egonkortasunerako" proposamena

**> I.E.**

Atzo eztabaidatu zuten Batzar Nagusietan Bizkaiko udalek soberakina inbertsioetan baliatu ahal izatea eskatuz EH Bilduk egin duen proposamena.

Arantza Baigorri Zaldibarko alkateak parte hartu zuen prentsaurrekoan aurkeztu zuten proposamena. Azaldu zuten, otsailean Gipuzkoan aho batez onartu zutenaren antz handia dauka EH Bilduk Bizkaian aurkeztuko duenak. Espainiako gobernuko Aurrekontuen Egonkortasunerako Legeak Zaldibarko Udalarari zelan eragiten dion azaldu zuen Baigorri: "Milioi bat baino gehiagoko soberakina dauka udalak, baina gaur egungo legediak ez digu zuten diru hori inbertitzen".

**> GARAI****Giro onean ospatu dute San Isidro eguna**

Eguaztenean, meza izan zuten eguerdian, eta ostean, bazkaria egin zuten Herriko Tabernan

**> M. ONAINDIA**

Garaiko nagusiek San Isidro eguna ospatu zuten eguaztenean, urteetako tradizioa mantenduta. San Migel nagusien elkarteak eratu zuen egunerako ospakizuna; eguerdian, meza izan zuten, eta ostean, bazkaria egin zuten Herriko Tabernan. Elkarteko kideek esan dute giro onean pasa zutela eguna. 24

lagun batu ziren bazkaltzeko, eta 25 euroko menua dastatzeko aukera eduki zuten: perretxiko krema, bakailao hostopila, legatza... Bazkalostean kartetan egiteko aprobetxatu zuten, arratsaldera arte.

Adierazi dutenez, elkarteko kideek kultur irteera berrien inguruan berba egiteko ere erabili zuten mahai-ingurua.

**> IZURTZA****Ekainaren 14ra arte jaietarako kartel lehiaketa hasi dute****> JOSEBA DERTEANO**

Udalak Izurtzako jaietako kartel lehiaketa abiatu du, ekainaren 14ra arte. Kartelean honako mezu hau agertu behar da: *Izurtzako jaiak 2013*. Horrez gainera, jaietako ezauzgarriren bat ere jaso edo irudikatu beharko da. Lehiaketa irabazten duenak 250 euro jasoko ditu.

Lehiaketara aurkezten diren kartelek 50x70 neurrikoak izan behar dute. Berori osatzeko teknika librea da. Kartel lehiaketarako oinarriak [www.izurtza.net](http://www.izurtza.net) webgunean aurkitu daitezke.

CEPA HHI **CEPA DURANGO HHI (Helduen Hezkuntza)**  
Doako irakaskuntza ofiziala

**AURREMATRIKULA**

ELUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**IRAKASKUNTZA ARAUTUA**

- Atzerritarrentzako gaztelania
- II. GRADUA (Lehen Hezkuntza)
- DBHko graduatua

**IRAKASKUNTZA EZ-ARAUTUA**

- Unibertsitaterako sarbide proba
- Goiko zikloetarako sarbide proba
- Informatika (hasiera maila)
- Euskara / ingelesa (hasiera maila)

Beste jarduerak batzuk: kultur ekitaldiak, irteerak...

**Matrikula egiteko ordutegia:**

Asteleheneretik ostegunera: 09:00-12:00/15:30-20:00. Ostiraletan: 09:00-12:00

**MATRIKULA ZAITEZ**  
94 681 42 53  
[www.epadurango.hezkuntza.net](http://www.epadurango.hezkuntza.net)

**IRAKASKUNTZA ARAUTUA:** maiatzaren 15etik ekainaren 21era  
**EZ-ARAUTUA:** ekainaren 17tik 21era





INSTITUTO ESPECIFICO  
DE FORMACION PROFESIONAL  
SUPERIOR

**ZORNOTZA**

GOI-MAILAKO LANBIDE  
HEZIKETAKO BERARIAZKO  
INSTITUTUA

*Lanerako  
Langile  
Trebatuak*

### GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal-Eraikuntzak.\*
- Web Aplikazioen Garapena.
- Mekatronika Industrialia.

### ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza Jarduerak.
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak.
- Mantentze-lan Elektromekanikoa.
- Soldadura eta Galdaragintza.
- Mikroinformatika eta Sareak Sistemak.

### ESKAINITZA PARTZIALA

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak.
- Soldadura eta Galdaragintza.

### SARBIDE-PROBAK EGITEKO PRESTAKUNTZA

- Goi Maila: zati orokorra.\*

### ZIKLO GUZTIAK EUSKARAZ ETA GAZTELERAZ

### DATAK

**Aurrematrikula:** maiatzaren **27** tik ekainaren **7** ra

**Matrikula:** uztailaren **8** tik **12** ra

**Tel.: 94 673 02 51**

**e-mail: [info@fpzornotza.com](mailto:info@fpzornotza.com)**

**[www.fpzornotza.com](http://www.fpzornotza.com)**

# ▶ Berbaz

Silvia Ortiz de Elgea | Donostiarra | Arkitekto ekologikoa eta Coach-a

## “Hozkailua zabaltzerakoan zergatik jan gura duzun jakitea da gakoa”

Antsietateak, tristurak, aspergurak... jateko gogoia eragiten dute. Elikadura kontzientearen gaineko ikastaroa ematen dabil Ortiz de Elgea Elorrion. Durangon, aste bi barru hasiko dute antzeko ikastaroa



### > AMAIA UGALDE

Gose fisikoa eta gose emozionala desberdintzen dituzue ikastaroan. Zer dira?

Askotan, estresagatik, aspertuta gaudelako, triste gaudelako... edo ohiturengatik jaten dugu, benetan gosetuta egon barik. Jaten duzu, ez zaudelako ondo. Eta adibidez, telebistaren aurrean jaten baduzu, ez diozu gorputzari entzuten, eta krispetak, izozki bat eta esnegainezko bost bonba jan ditzakezu; ez zara konturatzeko gorputzak zer behar duen.

Hainbat egoera emozional aipatu dituzu.

Bakoitzak bere arrazoiak dauz-

ka. Batek antsietateagatik jan dezake, besteak aspertuta dagoelako... Jateko obsesio horren jatorria non dagoen ikusi behar da, eta behin hori aurkituta, jokabideak aldatu ditzakegu. Jatorria zein den badakizu, hozkailua zabaltzerakoan pentsatu dezakezu: “Zergatik noa jatera, gosetuta nagoelako ala triste nagoelako?”. Triste zaudela konturatzeko bazara, konturatuko zara *nocilla* pote bat edo oilasko oso bat jan eta, gero ere, triste egongo zarela. Horren kontziente izanda, egoera horri buelta ematea erabaki dezakezu, abesti polit bat entzun, lagun bati deitu, paseo bat ematera joan...

Janariak lasaitze sentsazio txiki bat sortzen du?

Serotonina sortzen du, eta momentu labur batez sentsazio hori ematen du, baina gero, errudun sentitu zaitezke, pasatu egin zarelako, pisutsu eta beteta sentitzen zarelako. Jaterakoan, zergatik egiten duzun konturatzeko bazara, errespetatu egiten duzu zure burua, eta erabaki egin dezakezu. Esan dezakezu, “triste nago, eta horregatik, jan egingo dut”. Txokolate zati bat jan dezakezu, baina ez duzu tableta osoa jango. Kontziente izango zara, eta jaten duzuna gozatu egingo duzu. Ikastaroetan baliabideak eman gura ditugu, kontzien-

tzia lantzeko, entrenatzeko, eta txarto gaudenean, errekursoak edukitzeko.

Jateko moduak eurak ere aldatu behar ditugu, ezta?

Jende askok bost minutuan bakarrik jaten du. Jateak bere denbora behar du. Maitasuna azkar egiten duzu? Hondartzan igerian azkar egiten duzu? Gauza batzuk astiro eginda gehiago gozaten dira. Gainera, zenbat eta azkarrago jan, orduan eta gehiago jaten duzu. Urdailaren asetse prozesua hoge minutuko da. Hoge minutuan hiru bider azkarrago jaten baduzu, hori dena sartuko da. Astiroago jaten ba-

duzu, gorputzak hobeto asimilatuko du jatekoa. Hamaika gauzatan sartuta egoten gara, ardura askogaz, energia asko gastatzen, gogaituta, gure burua zaindu barik. Zainduz gero, burua argiago egoten da, eta arazoak arinago konpondu ditzakezu.

Elorrion, Emakume Eskolan eman duzue ikastaroa. Emakumei modu berezian eragiten die arazo honek?

Emakumeek presio handia daukate, txikitatik politik eta argalak izan behar garela esaten digutelako. Bederatzi urtegar jada, ume batzuk lodi sentitzen dira. Zelan izan daiteke hori? Umeak dira oraindik! Bizitza osoan besteei gustatzeko presio hori izaten duzu, eta txarreka da,

“

*Telebistaren aurrean jaten baduzu, ez diozu gorputzari entzuten, eta edozer jan dezakezu”*

ez diogula galdetzen gure buruari: “Neure burua gustuko dut? Zer gura dut?”. Neska askok hondartzara joateko beldurra izaten dute, ispiluan begiratzekoa... Energia gehiegi galtzen dugu horretan.

Gurpil zoroa izan daiteke hori...

Bai. Antsietatea eragiten dizu, jan egiten duzu, txarto zaude, dieta bat hasten duzu, eta horrek antsietatea sortzen dizu. Alboan pertsona bat edukiko bagenu beti esaten “ez egin hau, ez jan hau, ez dakit zenbat kaloria ditu...” pikutara bidaliko genuke. Bada hori da gure buruarekin egiten duguna. Guk kontrara planteatzen dugu; maitasunetik. Gure gorputzak badaki zer nahi duen, hari galdetzen jakin behar dugu.



Maiatzaren 29tik uztailaren 3ra  
Asteazkenero. 18:00-20:30  
DURANGON  
656 738 472 - 600 611 601  
www.on-egin.eu

Udabarri honetan:

## Aldatu zure gorputza barrutik hasita

Zugan antsietatea eragiten duten faktoreak kudeatzeko eta noiz eta zer jan nahi duzun erabakitzeke tresnak emango dizkizun **IKASTAROA** proposatzen dizugu.

Kontzientzia irabazi, **pisua galdu**



## &gt; ARTEA



## “Sentitzen dut oraindik bilaketa eta formazio prozesu betean nagoela”

‘Body & Landscape’ erakusketa ipini du Iñigo Garatu artistak (1990, Iurreta) Durangoko Museoa

## &gt; ITSASO ESTEBAN

Argazkiak, eskultura, instalazio bat eta bideo sorkuntzak bildu dituzu erakusketa honetan. Honetan hasi nintzenetik, beti eduki dut buruan ikusentzunezkoen arloan jardutea. Baina, Arte Ederretako Arte eta Teknologia adarreko ikasketak egiten dihardudan arren, eskultura eta instalazioa ere lantzen ditut.

Oso obra anitza da erakusketako. Zerk batzen ditu lanak? Gorputzari eta paisajeari buruzkoak dira. Beti gustatu izan zait paisaia, eta interesatu zait, esaterako, zelan eragiten duen gizakiaren eraikuntzak naturan.

Sormen prozesuan zaudela oharzen zara lan guztiak baten dituen gaia zein den? Bai, horrela izaten da, eta *All/Nothing* izeneko bideo lana da erakusketan daudenetatik gaia argien erakusten duena.

Zelan egiten duzu lan? Erabili-ko duzun tresna aukeratzeko duzu lehenengo, ala obrak berak zaramatza tresna aukeratzera? Ideia bakoitza zer bitartekorekin adierazi dezakedan hoberen pentsatzen dut, lehenengo. Baina, oraindik bilaketa eta formazio prozesu betean nagoela sentitzen dut; erabaki horiek ez ditut oraindino erraz hartzen.

Bilaketa horretan disfrutatu ala sufritu egiten duzu gehiago? Disfrutatu egiten dut. Gehien, bideo lanak sortzen.

Erakusketak hala dirudi, ala benetan sortzen duzu asko? Askok sortzen dut, bai. Baina orain oso lanpetuta nabilenez, ez daukat egunero sorkuntza artistikoan jarduteko aukerarik. Datorren urtean, ikasketak amaituta, denbora hartu gura dut modu independentean zelan produzitzen dudun ikusteko,

eta nire sorkuntza zein arlotatik bideratuko dudun erabakitzen joateko, nire espezializazioa aukeratzeko. Buruan darabilt, baita, datorren ikasturtean Salamancako Domus Artium 2002 aretoan nire lana erakustea.

Salamanca eta Durangaldea lortzen dituzu argazki lan batean. Bai; hamar urtera arte Salamancako La Albercan bizi izan nintzen, eta horrek ere izango zuen eraginik nire lanean. Gero etorri ginen Iurretara bizi izatera. Le-

ku bietako paisajea da menditarra, eta beti izan dut gogoko.

Gradu amaierako proiektua aurkeztuko duzu irailean. Non-dik bideratuko duzu?

Diziplinari dagokionez, eskultura eta bideoa uztartu gura ditut: eskultura bati buruzko bideo proiektio bat egitea. Eskultura hasi da forma hartzen: bideoa proiektatzeko kutxa-telebista moduko bat egin gura dut. Bideoa bera garatzea falta zait, baina badaukat lokalizazioari buruzko ideien bat, esaterako.

## ‘Reflejos 3.0’: orain arte egindako lanik osoena

Argazkingitza, eskultura eta instalazioa uztartzen ditu Iñigo Garatuk Duran-

goko Arte eta Historia Museoa ikusgai ipini duen erakusketako lanetako ba-



tean. Bideolanak sortzeko edo performance-ak egiteko erabiltzen dituen materialak bilduta osatu du, bestalde, *Ikusi barik* izeneko instalazioa.

Esklabotzari buruzko gogoetak daude, ekainera arte, Durangoko Arte eta Historia Museoa ikusgai izango den *Body & Landscape* erakusketan.

*Reflejos 3.0* bideo sorkuntzan, lanari, sakrifizioari, esfortzuari buruz dihardu Garatuk. Dioenez, hori da, bere ustez, orain arte egin duen lanik osoena.

**IKASTOLEN Jaiak 2013**

**BAQUÉ .café.**

HERRI URRATS Senpere Maiatzak 12

ARABA EUSKARAZ Amurrio Ekainak 16

NAFARROA OINEZ Tutera Urtiak 20

IBILALDIA Portugalete Maiatzak 26

KILOMETROAK Tolosa Urtiak 6

BAQUÉ .café. www.baque.com

**BETSÄIDE** AUTO-ESKOLA

Montevideo, 9 - Durango  
Tel.: 94 681 91 64

Gidabaimena lortzeko aukerarik onena!

Teorikoko ikastaro intentsiboak: Astelehenetik ostiralera, goizez edo arratsaldez.

Testak interneten bidez egiteko aukera

Finantzaketa aukera: [www.easycarnet.com](http://www.easycarnet.com)-en bidez

**PLAN APROBETXAGARRI ETA ATSEGINA UDARAKO!**

**B**etsaide

UDA IKASTAROAK Ekainaren 26tik uztailaren 24ra astelehenetik ostegunera

Erezena, 3  
Matiena-Abadiño  
Tel.: 637 416 438

Summer camp  
09:30-12:30  
6-12 urte

Errefortzu klaseak  
10:00-11:00 / 11:00-12:00  
Gehienez 5 pertsona

Ingeles intentsiboak  
2-3 orduko klaseak

Maiatzak 30 izena emateko azken eguna: [betsaidels@gmail.com](mailto:betsaidels@gmail.com)

**Arrike**  
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango  
Tel.: 94 620 18 93  
Faxa: 94 681 64 03

**> MUSIKA****> ITSASO ESTEBAN**

Nun musika taldean jardundako Eneko Burzako getxoztarrak duela urte batzuk bakarka abiatutako proiektua da Moby Dick. Gaur, baina, joan zen astean Basaurin abiatu zuen biraren barruan, taldeak lagunduta jardungo du 20:00etatik aurrera, Berrizen. Bateriak, gitarrek, baxuak, txeloak eta teklatuak lagunduta dator Moby Dick Berrizko kultur etxera.

Bateriak, gitarrek, baxuak, txeloak eta teklatuak lagunduta dator Moby Dick Berrizko kultur etxera

*Crowdfunding* bidez finantzaturiko *Cotard Delusion* izeneko disko berria aste gutxi barru labetik ateratzekoa da musikari getxoztarra, eta Berrizko hitzorduan, kanta berriak ere aurreratuko dizkie musikazaleei.

**> ANTZERKIA**

## 'Kilonbo' lana eskainiko dute Kurutziagako ikasleek

Gaur eta bihar, 22:00etan, Durangoko San Agustin kulturgunean eskainiko dute Kurutziaga ikastolako antzerki taldeko gazteek emanaldia. *Kilonbo* izeneko obra antzeztuko dute: esklabo lana egitera beharturikoek oihanean sorturiko komunitate askeei erreferentzia egiten dien izenburua daukan antzezlana.

Ikastolako 13, 14 eta 15 urteko 42 antzezlek parte hartuko dute emanaldian, eta astelehenean eta martitzenean ikaskideen aurrean ere eskainiko dute.

Kurutziaga ikastolako antzerki proiektua kudeatzen duen Jose Martin Urrutia Txotxe irakasleak idatzirikoa da testua, eta ikasleek sorturikoak eszenografia eta koreografiak. Irakasleak azaldu duenez, badira hogeita zazpi urte ekimen honenagabaz dabilzala Kurutziagan.

# Moby Dick musikazaleentzako gauak girotzera dator gaur

Jane Joyd eta Khantoria taldeen kontzertuek borobilduko dute programazioa



Joan zen zapatuan, Andikoko baselizan hasi zen maiatzean Berrizera lau zuzeneko dakartzan Musikazale Gauak programazioa. Egitarau horretan, Jane

Joyd izenpean diharduen Elba Fernandez galiziarren kontzertua ere badago aurreikusita maiatzaren 24rako. Americana eta folk doinuak ekarriko ditu.

Ander Berrojalbiz durangarraren, Maider Lopezen eta Virginia Gonzaloren Khantoria taldearen doinuek itxiko dute, maiatzaren 31n, musika zikloa.

**> MUSIKA**

## Elorrioko musika eskolako ikasleen Udaberriko Kontzertua, Arriolan

Bihar, 18:30ean hasiko da musikari gazteen Arriola antzokiko emanaldia



Udaberriko kontzertua eskainiko dute Elorrioko Garamendi'tar Agustin musika eskolako ikasleek bihar. 18:30ean hasiko da emanaldi hori, Arriola antzokian. Musika eskolako trikitixa, akordeoi, metal eta gitarra ikasleen taldeek joko dute, besteak beste, kontzertu horretan.

Bestalde, 5 eta 7 urte bitarteko umeek ipuin musikala eskainiko dute, eta bandaren emanaldia ere izango da entzungai Arriolan. Mikel Laboaren edo Sorotan Beleren kanta ezagunak joko dituzte, esaterako.

Musika eskolaren arduradunek azaldu dutenez, maiatzaren 20an zabalduko dute datorren ikasturterako matrikulazio epea. Aurten, 16 urtetik gorakoentzako alboka eta dultzaina ikastaroak eskainiko dituzte musika eskolan, lehenengoz.

**GEURE DURANGALDEA****AINHOA URIEN**

Ikaslea



## Harresiak eta herriak

Bata bestearen atzetik herri harresi bi eraikitzen ari garen honetan hamaika goraintzi laguna zeuen gorputzez babesten duzenoi. Budismoaren eta Gandhiren irudia etorri zait nahigabe burura Donostia zein Ondarroa gorputzeko hormez ikusi ditudanean; gorputzak elkar lotzea, inolako tabu edo aurreiritzi gabe, albokoa nor den begiratu gabe, izan ere, ezin hautsizko zer harik lotzen gaitu? Gorputzen igurtzi artean, sobera dago teknologiaren gain-erabilera, harresiaz kontzientziak epaitzeko balio dute halakoetan teknologiaren sorginkeriek. Elkarri lepotik utsiz, estatu zanpatzaileei ez ezik, gizakiaren alienazioari ere egin diezaiokegu aurre, teknologiak zurruputzen gaituen garaiotan elkarri musu eta besarkadaz babes ematea, baita robotizatu nahi gaituztenak erretzen dituen ere. Eta gizakia berez delako artea, artelana herri harresia. Poeta bati lumako tinta bezala, sarritan mesprexuz datorkio artetileari arte gehiago egiteko grina. Herri harresiak mesprexatzen dituztenak ez dira ohartzen borrokan jarraitzeko grina inork nahi gabe helarazten digutela, ez dira konturatzen ez baitakite poesiaz gozatzen, artea sentitzen edo musika (soinua) isiltasunean entzuten.

Eternitatea infiniturik gabe ezer ez denez, eternitatean jarraituko dugu gure herria gure harresiz babesten, harresi infinituak eraikitzen, harresien serie eternoak. Teknologia ez da guretzat baregarririk izango, gehiago asaldatuko gara; ez dago presarik, baina bizimoduak aurrera jarraitzen du, eta zorionez edo male-ruski, geuk ere bai.

**Hemen agertu gura badozu deitu!**

**94 621 79 02**

**PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia**

www.plateruena.net

**MAIATZAK 18 13:00etan KANTULAGUN**  
Andra Maritik hasita. 15:30ean bazkaria.

**MAIATZAK 18 23:00etan DJ ENOCK + DJ VICTOR ZELDEN**  
Musika zuzenean. Doan.

**MAIATZAK 23 19:30ean DF BERTSOZALE ESKOLA**  
Jon Maia: Doinua eta kantaera. Izen-ematea: 10 euro.

Eguneko menua astelehenean larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

**LAS MARIPOSAS DEL ESTÓMAGO NO HAN MUERTO**

La Papa Producciones (Durango)

**Malatzak 24 • 22:00**


San Agustin KULTUR GUNEA  
DURANGOKO UDALA



500. alea zuri  
esker bete da...



Irakurle guztioi, handi zein txiki,  
gazte zein heldu, 500. alea  
betetzea posible egin duzuelako,  
eskerrak eman gura dizkizuegu...



**Bihotz-bihotzez  
Eskerrik asko!**

# Iritzia

**GUTUNAK**  [gutuna@anboto.org](mailto:gutuna@anboto.org)  
eguzteneko 17:00ak arteko epea

## Lanak eta herri presioak fruitua ematen dute

Elorrioko Udalak Berdintasun teknikari postua finkatuko du.

Elorrioko Bilduk elorriar guztiak zoriondu nahi ditu, Berdintasun teknikari postua mantentzeko egindako lanagatik; azkenean, postu hori finkatu egingo baitute. Joan den astean, EAJk Bilduri hitza eman zion Berdintasun teknikari postua egonkortzeko. Lanpostu horren beharra benetan handia da, eta asko borrokatu da bere alde. Horregatik diogu elkarlanak eta herri presioak, azkenean, fruitua ematen dutela.

Berria positiboa da, batez ere, kontuan hartzen badugu EAJk gai honen inguruan zer nolako jokabidea izan duen orain arte. Gogorazazi nahi dugu duela urte askotik hona lan egin izan dela udal mailan gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde. Udaleko teknikari postua hasieran lanaldi erdikoa zen. Gerora, zerbitzu horren garrantziaz eta beharraz jabetuta, lanaldi osoa izatera pasatu zen.

Gauzak horrela, EAJk postu hori bazter uztea erabaki zuten, herriak, eta bereziki emakumeek, ez genuen ulertu. Justu lanpostua behin betiko finkatu behar zenean, EAJk geraraztea agindu zuen. Prozesua amaitzeko oposaketarako azterketa data jartzea besterik falta ez zenean.

Herri ekimen batek 600 sinadura batu zituen Elorrioren lanpostu hori egonkortu zedin eskatuz, eta apirilean mozio bat aurkeztu zen udalean gai hau jorratzeko. Printzipioz, ekaineko osoko bilkuran landuko da.

Elorrioko Bilduk herritar guztiak zoriondu nahi ditu, batez ere, gobernu taldeak jarrera alda dezan era batera zein bestera lan egin, presionatu eta lagundu duten erakunde eta pertsonak.

Askok geratzen da egiteko, oraindik arazo ugari dago konpon-

tzeko, baina garaipen txiki handi honek erakutsi digu, eta hala-berresten dugu, antolatuta eta elkarlanean baino ez diegula aurre egingo botereak inposatu nahi dizkigun bidegabekeria guztiei. Oraingoan guztiok, bai gizonezkoek bai andrazkoek, irabazi dugu. Oraingoan, Elorriok irabazi du. Zorionak guztioi!

### Elorrioko Bildu

## Amatxo

Beste urtebete pasatu dut zu gabe. Dagoeneko urte bi igaro dira bariku gazi-gozo hartatik: GAZIA, zure bihotz borrokalariak azken taupada eman zuelako; eta GOZOA, hiru urteko borroka luzea eta hamabost eguneko sufrimendua bukatu zelako.

Urkiolako baso eta tontorretan zaitugu zaindari; eta ondo ikusten duzun bezala, harribitxi bi gehitu ditut altxor zoragarria den nire inguru hurbilera -ziur nago zeuk ere izugarri maiteko zenituzkeela, nik bezala-.

Gogorra izan zen zu gabe bizitzan aurrera egiten ikastea, zure oroitzen guztiek min ematen zidaten-eta. Baina apurka konturatu joan naiz zuregatik ahal izan nuen guztia eman nuela; eta oroitzen horiek min eman baino, zuk utzitako hutsunea betezen zutela. Denborak ez du mina ezabatzen; denborak hutsunea onartzeko eta oroitzenekin bizitzeko ikasteko balio du.

Nire bihotzean beti izango duzu txokotxoa, zurekin bizi izandako momentu zoragarriak bete! Eskerririk asko denagatik, amatxo. Ikaragarri maite zaitut! Lehen, orain eta BETI!

### Urtzi Basabe

### SEI HANKAKO MAHAIA



**JUANJO GASTANAZATORRE**

PP

### Izan daitezela beste horrenbeste

Komunikabide batek urte-muga ospatzea beti izaten da albiste ona eta pozgarria; nola edo hala, itxaropena pizteko balio du. Baina are gehiago bizi dugun krisi garai hauetan, zoritxarrez, irrati, telebisten eta egunkarien itxierei buruzko albisteak ageri baitira nonahi.


Meritu handiagoa du, gainera, kontuan hartzen badugu komunikabide horretan bertako profesional talde batek gure eskualdean gertatzen dena kontatzeko ahalegin izugarria egiten duela.

*Anboto* astekaria denon elkargune bihurtu da jada. Hurreko informazioa dakarkigu, eta zalantza barik, astekari honen lanari esker ez balitz, informazio hori oharkabekoa litzateke, edo bestela, mundu globalizatu honetako leku guztietatik heltzen zaizkigun berri larriek eklipsatuko lukete.

*Anboto* abiatu zenetik, bai astekariak, bai Durangoko Udaleko alderdi politikook, parte-hartzea eta elkarlana sustatu ditugu. Alderdi guztiok daukagu idazteko txoko bat, eta bertan azal ditzakegu gure kezak, ideiak eta proposamenak.

Eskerrik asko gure iritzia emateko eta herritarrengana iristeko aukera emateagatik. Zorionak 500. alea argitaratzeagatik, eta jakina, izan daitezela beste horrenbeste!

*\* Erredakzioan itzulia*



## Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215  
[astekaria@anboto.org](mailto:astekaria@anboto.org)

- Izen-abizenak
- telefonoa
- helbidea
- eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

**-DATUOK BARIK, EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-**

### Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215-lurreta (Bizkaia)  
Tel.: 94 681 65 58  
Erredakzioa:  
94 623 25 23  
Publizitatea:  
94 621 79 02  
[publi@anboto.org](mailto:publi@anboto.org)

2013ko maiatzaren 17a  
11. urtea - 501. alea

### Zuzendaria:

Jone Guenetxea.  
**Erredakzio burua:**  
Joseba Derteano.  
**Administrazio burua:**  
Itziar Belar.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo.  
**Publizitatea:** Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia eta Amaia Ugalde.  
**Maketazioa:**  
Ainhoa Arizmendiarieta.  
**Zuzentzailea:** Goiatz Etxeita.  
**Argazkilaria:** Kepa Aginako, Zaloa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

## &gt; TRINKETEA

# San Trokaz txapelketako finalak jokatuko dituzte etzi

Uriarte eta Antxia abadiñarrek Waltary eta Etxebarria izango dituzte aurkari



Uriartek eta Antxiak eroso lortu zuten finalerako sailkapena Gonzalez eta Bonetbelcheren aurka. Kepa Aginako

## &gt; JOSEBA DERTEANO

Domeka eguerdian San Trokaz Txapelketako finalak jokatuko dituzte Abadiñoako Tornosolo trinketea. 11:30ean hasiko da jaialdia; lehenengo promesen mailako finala jokatuko dute Arabiourruak eta Bilboak. Ondoren, 12:30 inguruan, binakako final nagusian neurtuko dira Rober Uriarte eta Ander Antxia alde batetik, eta, Waltary eta Etxebarria, bestetik. Abadiñoako

bikoteak 40-23 menderatu zituen Mikel Gonzalez eta Bonetbelche finalurrekoetan. Antxia garbi nagusitu zen atzean eta Uriartek aukera asko izan zituen.

Bigarren finalerdian, 0-10 gal-tzen hasi arren partiduari buelta ematea lortu zuten Waltaryk eta Etxebarriak: 40-27.

**Pilotako finalak zapatuan**

Bestalde, San Trokas Pilota Txapelketako finalak ere jokatu-

ko dituzte zapatuan, 18:00etan. Kadeteetan, Peña eta Mendia beasaindarrak Arrizabalaga eta Urizar markinarren aurka ariko dira. Nagusietan, Oartzungo Ugalde anaiek Arabiourrutia abadiñarra eta Izurieta barakaldarra izango dituzte kontrario. Finalaren aurretik, Atxarte pilota eskolak Toribio Irazola omenduko du, urte askoan Abadiñoako pilota eskolaren alde egindako lanagatik.

## &gt; KORRIKA

# Ainhoa Zarandona bigarren izan da Gasteizko maratoian



## &gt; JOSEBA DERTEANO

Ainhoa Zarandonak (Durango, 34 urte) bigarren amaitu zuen joan zen asteburuan Gasteizko Martin Fiz Maratoia. Maratoi distantzian parte hartzen zuen lehenengo aldia zen, eta 2.54.52ko denboragaz, emakumeetan Laura Garcia bakarrik

helmugaratu zen bere aurretik. Garciak 16 segundoko aldea atera zion, eta hainbat kilometroan begi bistan eroan zuela adierazi du Zarandonak: "Erritmo ona neraman, baina uste dut banuela apur bat arintxoago joateko modua. Hala ere, eskuin hankako koadrizepsean mina igartzen hasi nintzen eta gurago izan nuen hanka gehiegi ez behartu". Iaz, Gasteizko maratoi erdian parte hartu eta irabazi egin zuen.

## &gt; TXIRRINDULARITZA

# Santesteban, Eskamendi eta Sanz txapeldun

Joan zen zapatuan Iurretan hasi eta amaitu zen Bizkaikoloreak lasterketan, Euskadiko txapeldunak erabaki ziren. Elite eta 23 urtez azpiko irabazleak Bizkaia-Durango taldekoak dira: Ane Santesteban eta Dorleta Eskamendi. Eurak izan ziren lehen eukaldunak. Junior mailan Iurretako CAF Engineering taldeko Ainara Sanz Vazek irabazi zuen.

## &gt; XAKEA

# Zaldi Baltza eta Abadiño partida azkarren lehia

Etzi Bergaran jokatu den Partida Azkarren Euskadiko Xake Txapelketa lehiatzeko sailkatu dira Elorrioko Zaldi Baltza eta Abadiñoako xake taldeak. Buruz burukora Abadiñoako batzuk sailkatu dira, baina ez dute jokatu. Bestalde, oraintsu Bizkaiko Eskolarteko Txapelketa irabazi dute Jon Lagosek eta Adrian Martinezek nork bere mailan.

## &gt; BIZIKLETA MARTXA

# Berrizko martxarako izen ematea hasita

Ekainaren 9an Berrizko IV. Martxa Zikloturista antolatuko dute Berrizko Bizikletari Elkarteak eta Berrizko Udalak, eta asteon izen ematea hasi dute. Webgunearen bidez ([www.berrizbizikletarielkartea.com](http://www.berrizbizikletarielkartea.com)) egin daiteke: federatuentzako 10 euro da eta federatu gabekoentzako 20 euro.

## &gt; AGENDA

## &gt; FUTBOLA

**HIRUGARREN MAILA**

**Durangoko Kulturala - Baskonia**  
· Zapatuan, 18:00etan, Tabiran

**LEHENENGO ERREGIONALA**

**Zaldia - Berriz**  
· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian

**HIRUGARREN ERREGIONALA (txapeldunak)**

**Iurretako B - Menes**  
· Zapatuan, 17:00etan, Larakozelaian

## &gt; ARETO FUTBOLA

**EUSKAL LIGA (gizonak)**

**Sasikoa - Abadiñoako Lagun**  
· Zapatuan, 18:00etan, Landako kiroldegian

**Elorrioko - Kurutzia**  
· Zapatuan, 18:00etan, Elorrian

**LEHENENGO ERREGIONALA**

**Sapuberri - Mazusberri**  
· Zapatuan, 19:55ean, Landakon

**Elorrioko B - Aurrera Beti**  
· Barikuan, 20:00etan, Elorrian

**Dantzari - Gernika Naturgas**

· Zapatuan, 17:30ean, Iurretako Lanbide Heziketa Institutuan

**Abadiñoako Gaztetxe - Freunde**  
· Zapatuan, 17:00etan, Matienan

**EMAKUMEEN LIGA**

**Sasikoa - Alegria**  
· Zapatuan, 15:30ean, Landakon

## &gt; SASKIBALOIA

**LEHENENGO MAILA (gizonak)**

**Tabirako Baque - Lizuan.com**  
· Zapatuan, 18:00etan, Landakon

## &gt; FRONTENISA

**MALLABIKO FRONTENIS MARATOIA**

Maiatzaren 31n eta ekainaren 1ean eta 2an.  
Izen-ematea: 669 028 718.  
Gehienez 24 bikote (10 euro).

## &gt; FUTBOL KONGRESUA

**'VILLA DE DURANGO' FUTBOL KONGRESUA**

Ekainaren 8an eta 9an, Durangoko Gran Hotelan.  
Izen-ematea: 717 166 845 edo [www.gertasport.com](http://www.gertasport.com)

Hizlariak: Jose Luis Mendilibar, Felix Sarriugarte, Gonzalo Arconada, Mikel Etxarri...

## EREMU HANDIKO ERRESONANTZIA MAGNETIKOA



Durangoko Poliklinika estreinatu berri dugu, DURANGOKO DIAGNOSTIKO ZENTRO berria irekitzean. Bizkaiko erradiologo esanguratsuez osatutako taldeak dakarren esperientzia zabala da zentro honen berme nagusia.



Tel.: 94.466.86.68  
[cddurango@gruposcanner.biz](mailto:cddurango@gruposcanner.biz)

Durangaldeak badu jada, aurrenekoz, Erresonantzia Magnetikoaren Zerbitzua; teknologiarik aurreratuenarekin, diseinu konpaktuko imanarekin, eta tunel ultra labur batekin (145 cm), beste erresonantzia batzuetan sor daitezkeen klaustrofobia sententzia saihesteko.



MUTUA NAGUSIEKIN ARI GARA LANEA!



Intxaurrondo kalea, 19. DURANGO  
(karmeldarren komentu zaharrean)

&gt; IGOERAK

# Zaldua eta Abadiño futbolearen eta Sapuberri areto futbolearen igoera

Zaldua Maila Gorenera itzuli da; Abadiñok igotzea lortu du bigarren urtez segidan



Goian Abadiñoko jokalariek, eta behean Zaldukoak, igoera ospatzen.

## &gt; JOSEBA DERTEANO

Lehenengo Erregionalean, goitik behera agindu dute aurten Durangaldeko taldeek. Futbolearen zein areto futbolearen. Joan zen asteburuan, Zalduak eta Abadiñok segurtatu egin zuten Maila Gorenerako igoera futbolearen. Areto futbolearen, beste hainbeste lortu zuen Sapuberri, eta asteburu honetan, Elorrioko B batu daki. Elorrioko taldea igoko balitz, jokamolde bietan Lehenengo Erregionaletik Maila Gorenera igoera zuzena lortuko luketen lau taldeak Durangaldekoak izango lirake.

Abadiño bigarren urtez jarraian igoko da. Joan zen do-

Sapuberri zaleei euren animoak eskertzeko baliatuko du azken partidua

mekan, 4-2 menderatu zuen Berriatuko. Irabazten hasi, galtzen ipini (1-2) eta partiduari buelta eman zioten. Jokin Idirinek, Alain Azkaratek eta Jon Sanchezek (bi) sartu zituzten golak.

Zalduak 2-5 irabazi zion etxetik kanpora Gatika Bri. Horrela, iaz jaitsi aurretik, orain urte bi lortutako igoera errepikatuko du Zaldibarko taldeak. Zalduak ez du etxean partidurik galdu denboraldi osoan: 12 garaipen eta lau berdinketa. Gainera, ez dute porrotaren arrastorik izan azken bederatzi jardunaldietan: sei garaipen eta hiru berdinketa. Azken jardunaldian, Berrizen kontrako derbia jokatu dute.

Areto futbolearen, Sapuberri bigarren igoera lortu du taldea sortu zutenetik hiru urte bakarrik pasa diren arren. Azken hamar partiduetatik bederatzi irabazi eta bestea berdinduta, liga amaiera ikusgarria osatu du. Ligako azken partidua zaleei beren animoak eskertzeko baliatuko du.

## ADITUAREN TXOKOA



**CARLOS PEREZ**

## Areto futbola

## Bada etorkizunik?

Ez dirudi Hirugarren Mailan jokatzeari uko egingo dion talde bakarra Mallabia izango denik. Beste talde batzuk ere aukera hori aztertzen dabilta. Izan ere, krisi ekonomikoak gogor eragin du; babesleak falta eta dirulaguntzak gutxitu dira (federaziokoak barne). Hori guztia federazioen pasibitatearen aurrean gertatzen ari da, eta gehiago kezkatzen dira dirua biltzeaz klubei laguntzeaz baino.

Kostuak gutxitzen lagundu dezakete behin-behineko neurri sinpleekin: epaileak izendatu eta partiduak kronometratuta (1.200 euro aurreztuko genituzke); delegatuak mutualizatzeko derrigortasuna kenduta (400-660 euro); txartelen kostua erdira jaitzita (400-600 euro). Diziplinazko zigorrak handituta konpentsatu daiteke azken hori; esaterako, txartel bikoitzagatik edo bost txartel pilotzeagatik partidu bateko zigorra ezarrita.

Hurrengo denboraldian, Gipuzkoako taldeen nagusitasunak jarraituko du Hirugarren Mailan. Izan ere, jaitziera denak bizkaitarrak dira, eta igoera Ibarra eta Gasteizen artean dago. Eskerrak, gutxienez, Durangaldeko talde bi igoko direla Euskal Ligatik. Elgoibarrek eta Zierbenak Bigarren A Mailarako *play off*a jokatu dute, baina badirudi gipuzkoarrak bakarrik dabiltzala erronkari aurre egiteko dirua lortzeko borrokan.

Euskadiko Federazioa eta kirol agintariak noiz hasiko dira serio lanean Euskadik elitean talde bat izateko? Bilbao Basket salbatzera bideratutako %10agaz nahikoa litzateke.

\*Erredakzioan itzulia

## &gt; AUTOMOBILISMOA

## Urienek lehen podiuma lortu du Europako F3 Openean

Europako F3 Openean debutari den Igor Urienek hirugarren amaitu zuen joan zen asteburuan Portugalgo (Algarbe) zirkuituan lehiatutako lasterketa. Zapatuko lasterketan lortu zuen bere mailan (F308 Kopa) podiumera igotzea; domekan laugarren geratu zen.

Urien pozik dago bere errendimenduagaz: "Fisikoki indartsuago sentitzen naiz, eta gero eta ohituago nago monoplazara. Bide onetik goazela uste dut". Openeko hirugarren lasterketa ekainaren lehen izango da Alemaniako Nurburgring zirkuituan.

## &gt; TXIRRINDULARITZA

## Murgoitio Bizkaiko onena mendiko bizikletan

Egoitz Murgoitio (Hirumet taldea) irailean hasiko den ziklo-kros denboraldia prestatzen dabil. Aurten, errepideko lasterketak mendiko bizikletako batzuekin uztartzea erabaki du, "teknika hobetzeko oso baliagarria delako". Horrela, joan zen asteburuan, bere ibilbidean bigarren bider mendiko bizikletako proba batean parte hartu zuen: Bilboko BTT proban. Lasterketa irabazi eta Bizkaiko txapela jantzi zuen. Jonathan Lastra taldekidea ere txapeldun geratu zen 23 urtez azpiko mailan.

## &gt; ARETO FUTBOLA

## Presion Break eta Sasikoa igoeraren bila asteburuan



K.Aginako

## &gt; JOSEBA DERTEANO

Areto futbolearen, Presion Break Euskal Ligara zuzenean igo daiteke asteburuan. Horretarako, bere partidua irabazi behar du eta Zorrotzako liderak galdu egin behar du Sasikoa Bren aurka. Sasikoa Bk

puntuak behar ditu jaitziera postutik irteteko.

Bestalde, Euskal Ligatik Hirugarren Mailarako igoera egongo da jokoan Sasikoa eta Abadiñoko Lagunen arteko derbian. Meatzari da igotzeko aukerak dituen beste taldea.

katerin ardoak  
iñaki uribe

saltsan

Eguneko eta asteburuak menuak - Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

**GAER** DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITZAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 94 622 57 74 / 658 75 72 79 - BERRIZ



# EDERTASUN GIDA



**Ana Camarero**  
Bikini operazioa

## Zergatik agertzen da zelulitisa?

Hainbat arrazoiengatik. Horien artean, hormona alterazioengatik –obarioak, tiroideak–, idorria kronikoagatik, dieta desorekatuagatik edota faktore genetikoengatik. Zelulitisa emakumeen %90i eragiten dio, eremu batzuetan likido eta gantzak pilatuta. Gure edertasun zentroan, gorputzerako tratamendu berri bat barneratu dugu, zelulitisaren kontrakoa eta erreduktorea. REDUCEL dauka izena. Bi fase dauka tratamenduak: likidoak kentzekoa eta gantzak kentzekoa. Peeling, serum, zelulitisaren kontrako krema indar-emailea eta kosmetiko-geruza erabiliko dira.

## Zenbat saio behar dira?

Guztira, hamar. Aste bakoitzean saio bi ematen ditugu, bost asteko epean. Saio bakoitzak 60 minutu irauten du gutxi gorabehera, eta emaitzak lehenengo saiotik igartzen dira: gantz pilaketak disolbatzen ditu, laranja itxurako azala desagertzen da, zirkulazioa hobetzen du, eta azala indartzen du.

## 3 AHOLKU

- 1** Gure edertasun zentroan, tratamendu berri bat daukagu, REDUCEL
- 2** Zelulitisaren kontrakoa da. % 30eko deskontua egiten dugu gainera!
- 3** Hamar saioko tratamendua da. Saio bakoitzak 60 minutu irauten du



## ESTETIKA ZENTROAK

**Ana Camarero**  
Edertasunerako tratamenduak eta aholkularitza

**Zelulitisaren aurkako**  
tratamendu **BERRIA**

**%30\* deskontua**  
500€tik 350€ra

\* Maiatzaren 1etik ekainaren 15a arte

**Ikusi eta sentitu zure burua hobeto!**

Goienkale 16-1. esk - 48200 Durango  
Tel.: 94 681 73 80 • Mug.: 639 375 474

**Cristina Agirre**  
• apaindegia •

**CA**

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILLAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango



## ILEAPANDEGIAK

**NUKLEO**  
ileapaindegia

[myspace.com/pelukerianukleo](http://myspace.com/pelukerianukleo)

Nizeto Urkizu, 14 behea • Elorrio • Tel.: 94 658 29 96

**IUNIK** ileapaindegia

Antso Estegiz, 1 - Durango - 94 621 64 91



**Profesional onenak zure zerbitzura!**

# ➤ Aisialdia

➤ **AMALURRA**



Landaederrako aisialdi gunean, gauak pasatzeko aukera egongo da laster.



## Landaederrako aterpea herritarrentzat zabalduko du udalak gutxi barru

Hamabost lagunentzako lekua eta egonaldi laburrak egiteko ekipamendua edukiko ditu Landaederrako estalpeak: argindar elektrikoa, janaria berotzeko sukalde txiki bat eta ura

### ➤ **MARKEL ONAINDIA**

Mugarraren magalean dagoen Landaederra ingurunea leku ezaguna da Durangon. Familia giroarako aproposa, mendi ibilaldietarako atsedeen-gune, gazte taldeek ekintzak egiteko egokia... Bertan, egunpasak egiten dituzte askok; lasaitasun bila joaten dira beste hainbat. Bada, laster, gauak ere pasa ahal izango dira bertako aterpean. Izan ere, udalak obrak egin ditu lekua egokitzeko. Araudia ere zehaztu dute, eta hurrengo udalbatzarrean behin betiko onartzea itxaroten dute. Horrela bada, erabakia hartu eta gutxira egongo da erabilgarri aterpea. Egonaldi laburrak egiteko ekipamendua edukiko du: argindar elektrikoa, ur bero eta hotza –ez edangarria– eta janaria berotzeko sukalde txiki bat. Logelan, hamabost ohe daude.

Ander Gorrotxategi Gazteria arloko zinegotziak (EAJ) aurkeztu zuen egitasmoa azkeneko udalbatzarrean. Aho batez onartu zuten alderdi guztiek.

Berez, aspaldiko ideia izan da, baina Gorrotxategi adierazi zuen argindarra 2010ean heldu zela bertara, eta gutxieneko baldintza batzuk izan arte ez zutela zabaldu gura.

### Hamabost lagunentzako lekua

Hamabost lagunek lo egin ahal izango dute Landaederrako estalpean. Herritarrez gainera, hainbat elkarte eta erakunde izango dute berori erabiltzeko aukera. Baina, erreserbak egiteko lehen-tasunak ezarri dituzte, honela: udala –gazteria, kirol eta kultur jarduerak–, gazteei begirako taldeak, elkarteak, herritarrek eta gainerako herrietakoak. Eguneko eta pertsona bakoitzeko lau euro ordaindu beharko dituzte Durangon erroldatuek, eta 5,20 kanpokoek. Araudiaren arabera, zazpi eta hamabost pertsona bitarteko erreserbak egin ahal izango dira; zazpi baino gutxiago izanda ere, zazpi lagun kopurua ordainduko dute. Horretaz gainera, eguneko bost

euroko fidantza hartuko dute udaleko arduradunek, eskaera egitera joaterakoan.

Urteko 365 egunetan erabili ahal izango da aterpea. Pinondo Etxean dagoen Gazte Informazio Bulegoan egingo dira eskaerak, eta Landaederrara joateko giltzak ere bertan hartuko dira, adierazi dutenez.

### Baldintzak

Arduradunek esan dute, estalpea erabiltzen dutenek araudia bete beharko dute. Hainbat baldintza daude bertan: ezin da drogarik kontsumitu, eta erretzea eta alkohola edatea ere debekatu dute; animaliak sartzea debekatuta dago; lozka edo izarak eroatea beharrezkoa da; talde bakoitzeko arduradun bat zehaztuko da... Arduradun horrek bermatu beharko du instalazioaren erabilpena egokia dela.

Inguruneaz gozatu, natura ezagutu eta aisialdiko denbora pasatzeko aukera berri bat eskainiko du aterpeak.

**Araudia zehaztu dute, eta hurrengo udalbatzarrean behin betiko onartzea itxaroten dute**

**Eguneko eta pertsonako lau euro ordaindu beharko dituzte Durangon erroldatuek, eta 5,20 euro kanpokoek**

**Eguneko bost euroko fidantza hartuko dute udaleko arduradunek, eskaera egitera joaterakoan**

laguntzaileak



# EZUSTEKORIK GABE erostean



# EZUSTEKORIK GABE konpontzean

FORDen TARIFA FINKOA	DENA BARNE €	B-MAX, FIESTA, FUSION, KA	FOCUS, C-MAX	KUGA, GALAXY, MONDEO, S-MAX
	AURREKO ESKULAK	45€ 7,50€/hilean	45€ 7,50€/hilean	50€ 8,33€/hilean
	FRENO-LIKIDOAK	50€ 8,33€/hilean	50€ 8,33€/hilean	50€ 8,33€/hilean
	IZOTZ-KONTRAKOA	55€ 9,17€/hilean	60€ 10€/hilean	60€ 10€/hilean
	BATERIAK	115€ 19,17€/hilean	150€ 25€/hilean	175€ 29,17€/hilean
	AURREKO FRENOEN PASTILLAK	125€ 20,83€/hilean	150€ 25€/hilean	165€ 27,50€/hilean
	ABIATZE-MOTORRA	235€ 39,17€/hilean	240€ 40€/hilean	260€ 43,33€/hilean
	BANAKETA-UHALA	285€ 47,50€/hilean	340€ 56,67€/hilean	350€ 58,33€/hilean
	BANAKETA-UHALA UR-PONPAREKIN	370€ 61,67€/hilean	390€ 65€/hilean	490€ 81,67€/hilean
	AURREALDEKO MOTELGAILUAK	350€ 58,33€/hilean	370€ 61,67€/hilean	430€ 71,67€/hilean
	ALTERNADOREA	395€ 65,83€/hilean	395€ 65,83€/hilean	395€ 65,83€/hilean
ENBRAGE KITA	670€ 111,67€/hilean	690€ 115€/hilean	825€ 137,50€/hilean	
ENBRAGE KITA + IDUNEKOA	830€ 138,33€/hilean	950€ 158,33€/hilean	1.150€ 191,67€/hilean	



**FORD ECO EXPRESS**  
Ez arriskatu! Uda honetan zure Ford autoa prest **99€**ren truke  
Eta **MAIATZ** eta **EKAINEAN** soilik **eco** mantenimenduarekin  
**ERREPIDEKO ASISTENTZIA DOAN URTEBETEAN!**



**FORD PNEUMATIKO ECO EXPRESS**  
**11,50**  
€/hilean  
6 hilabetetan  
**69€**  
Prezioa guztira  
**DENA BARNE**  
205 /55 R16 91V

**FORD PNEUMATIKO ECO EXPRESSEN BAINO MERKEAGO AURKITZEN BADUZU,**

**ALDEAREN ITZULIKO DIZUGU HIRUKOITZA**



Grupo Kondia

**ZIORLA AUTOAK**

Santamaña kalea, 19 - Iurreta - Tel.: 94 681 55 59

[www.fordkondia.com](http://www.fordkondia.com)



# Inmobiliariak

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
San Agustinalde, 4 - 1 ezk • 48200 DURANGO

**AGENCIA INMOBILIARIA**  
**Fernando Uribe**  
Barrenkalea 15, behe • 94 681 64 23  
48200 DURANGO • Bizkaia

**ISD** Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 94 681 66 66  
www.inmoduranguesado.com  
inmoduranguesado@gmail.com

**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 94 681 40 49 • DURANGO  
www.inmoetxetxo.com

## ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

### DURANGO

- 2, 3 eta logela bakarreko etxebizitzak alokairuan

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### DURANGO

- ARTEKALEA: 8 etxebizitzaren eraikuntza hastera goaz. 2 logela eta logela bakarrekoak. Trastelekuarekin. 140.000€ -tik aurrera.
- SAN IGNAZIO AUZUNEA: 3 logela, 2 komun, sukaldia eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trastelekuak. Igerilekuarekin.
- DURANGO: 2 logela, egongela, komuna, sukaldia eta despentsa. Berriztatuko. 114.000€
- ERDIALDEAN: 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldia. Berria eta guztiz jantzia. Garajea eta trastelekuak.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldia balkoiarekin. Trastelekuak eta garajea.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldia, office-a, 2 komun eta egongela. Garajea eta ganbara.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatuko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukaldia amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.
- BARRENKALE: Duplexak. Eraikuntza berria. Berehalako banaketa. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldia amerikarra.

### LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldia eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekuak eta frontoia.

### ABADIÑO

- 2 logela, 2 komun, sukaldia-jangela, egongela eta eskegitokia. Garajea, trastelekuak eta ganbara. Ikusgarria.

### ATXONDO

- 2 logela, komuna, sukaldia balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

### ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldia eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekuak.

## LUR SAILAK SALGAI

### BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

### IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

### MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruta-arbolekin.

### OLETA (OTXANDIO)

- 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxea ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.

### EUBA

- 3.000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lur zati, bakoitzean familia biko etxebizitza eraikitzeko aukerarekin.

### ABADIÑO

- Familia biko etxebizitza eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai.

### DURANGO

- Lursail erdia familia biko etxebizitza eraikitzeko. Proiektua barne.

## BASERRIAK SALGAI

### IZURTZA

- Baserrira salgai lorategi itxiarekin. Ortu eta lursailarekin. Durangotik 5 minutura.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- DURANGO-ERRENTXU: Salgai. Adosatua eraikitzen.

- ABADIÑO, OTXANDIO, etab...

### ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldia, jangela, egongela, 2/3 logela, 2 komun eta egongelaxoa.
- ANTISO EZTEGIZ: Halla, egongela, sukaldia, 2 logela eta komuna.
- BARRENKALEA: Halla, sukaldia, egongela, komuna eta 2/3 logela. Ganbara.
- BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldia, egongela, 2 logela eta komuna. Guztiz berriztatua. Terraza. Garajea aukeran.
- GALLANDA: Estreinatze. Halla, sukaldia, egongela, logela bakarra edo 3 logela, komun bakarra edo 2 komun eta balkoia. Ganbara eta garajea.
- EZKURDI: Halla, egongela-jangela, sukaldia jantzia, 3/4 logela eta 2 komun.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, 2 egongela, sukaldia, 3 logela eta komuna.
- JUAN DE ITZIAR: Halla, egongela, sukaldia, 2/3 edo 4 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa.
- KOMENTUKALEA: Halla, sukaldia, egongela-jantokia, 4 logela eta komuna. Ganbara.
- MURUETATORRE: Halla, sukaldia, eskegitokia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- OÑITURRI: Halla, sukaldia, eskegitokia, sukaldia, 3 logela, egongela-jangela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- PLATERUEN PLAZA: Halla, egongela, jangela, sukaldia jantzia, 4 logela eta 3 komun. Garajea eta trastelekuak.
- TXATXIENA: Halla, sukaldia, despentsa, egongela-jangela eta 3 logela. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- SASIKOA: Halla, sukaldia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- IBAIZABAL: Halla, sukaldia, egongela, logela eta komuna. Ganbara eta garajea.
- ASKATASUN ETORBIDEA: Halla, sukaldia, egongela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- SAN AGUSTIN: Halla, sukaldia, 5 logela, egongela eta 3 komun.
- ABADIÑO-SAN TROKAZ: Halla, sukaldia, 2 logela, egongela eta komuna. Lorategia. Trastelekuak eta garajea.
- ABADIÑO-MUNTSARATZ: Halla, egongela-jangela, sukaldia jantzia, 2 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara. Berria. Egoera onean.
- BERRIZ: Halla, sukaldia jantzia, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. Balkoia. Jantzia. Garajea eta trastelekuak.
- ELORRIO: Halla, sukaldia, 2/3 logela, egongela eta komuna. Balkoia. Trastelekuak eta garajea.
- ELORRIO: Berreraikitze etxea, lursailduna.
- IURRETA: Halla, egongela, sukaldia jantzia, 3 logela eta komuna. Jantzia eta berrikuntza askorekin.
- IURRETA: Halla, egongela, jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara.
- IURRETA: Arriandi auzoa. Halla, sukaldia, egongela, 3 logela eta komuna dutzarekin.
- MAÑARIA: Halla, egongela-jangela, sukaldia jantzia, 3 logela eta 2 komun. 12 m2-ko trastelekuak. Oso egoera onean dagoen etxea. Igogailua. Eguzkitsua.
- MARKINA: Iruzubietan. 55.000 m2-ko lursaila erdi berriztatutako eraikinarekin.
- SALGAI: BASERRIA LUR EREMUAREKIN MENDATAN ETA BERRIZEN.
- SALGAI: TXALET ADOSATUA LUR EREMUAREKIN MAÑARIAN.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### ASKATASUN ETORBIDEA



- Eraikuntza berriko pisuak. 1, 2 eta 3 logela. 2 kofaxerako garajea. 215.000€ -tik aurrera. Etor zaitze ikustera konpromiso gabe!

### ELORRIO



- Erdi-berriztatutako baserri ikusgarria. Bizitzera sartzeko. 600 m2. 7000 m2-ko lursaila. Herrigunetik 10 minututara oinez. 400.000€

### SAN AGUSTINALDE



- 135 m2 erabilgarridun pisu ezin hobea. Kanporantz ematen du. Bista ederrekin eta eguzkitsua. Zure nahierara berriztatze! Garajea aukeran. 330.000€

### ASKATASUN ETORBIDEA



- 3 logeladun etxebizitza. Egongela, sukaldia handia, bainugela, balkoia eta ganbara.

### ABADIANO



- Familia bakarreko harrizko etxebizitza herrigunearan. 87 m2 erabilgarridun 3 pisu. 139.000€.

Aipatutako etxebizitzek gain, Durangalde osoan etxebizitzaren aukera zabal dugu, 50.000euro-tik aurrera.  
**www.inmoduranguesado.com**

## ETXEBIZITZA BERRIA ESTREINATZEKO

- ZALDIBAR: Kurutzezar plaza/Solonagusia. Garaje eta trastelekuarekin. Logela eta komuna: 118.000 € 2 logela eta 2 komun. 138.000€. 3 logela eta 2 komun. 178.000€.
- IURRETA: estreinatze. 1, 2 eta 4 logela. 2 eta 3 komun. Ganbara. Trastelekuak. Garajea aukeran. 180.000€.
- ATIKOA: berria. Estreinatze. 3 logela eta 2 komun. Terrazak. Trastelekuak eta garajea aukeran. 212.000€. BEZ barne.
- BARRENKALEA: berria. Duplexa. 2 logela eta 2 komun.

## AUKERA

- JUAN ITZIAR: 4 logela eta komuna. 9 m2-ko trastelekuak. 132.000€.
- SAN ROKE: 3 logela eta komuna. 2 terraza. Ganbara. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. 200.000€.
- DURANGO: 2 logela, egongela eta komuna. Igogailua. Bizitzaren sartzeko moduan. 116.000€.
- ZALDIBAR: 3 logela. Eguzkitsua. Trastelekuak. 84.000€.
- IURRETA: 3 logela. Eguzkitsua. 50.000€.
- BERRIZ: Iturria. 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Terraza. Despentsa. Berogailua eta igogailua. Ganbara eta garajea. 211.200€.
- MURUETATORRE: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Terraza. 190.000€.
- OIZ: 3 logela, egongela eta sukaldia. 3 balkoi. Igogailua. 150.000€.
- ZEHARKALEA: 3 logela eta komuna. Igogailua. 138.000€.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- HERRIKO GUDARIEN KALEA: 3 logela eta 2 komun. Terraza. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua.
- ASTEPE: 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. 215.000€.
- GALLANDA: apartamentua. Trastelekuak eta garajea. 186.000€.
- F.J. ZUMARRAGA: 2 logela eta 2 komun. Terraza. 186.000€.
- MURUETATORRE: 3 logela eta 2 komun. Trastelekuak eta garajea. 264.000€.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, 2 komun eta egongela. Terraza. Ganbara eta garajea. Igerilekuak. Eguzkitsua. 240.000€.
- KOMENTUKALEA: 4 logela eta egongela. Terraza. Berriztatua. 211.000€.
- TXIBITENA: 3 logela eta 2 komun. 2 terraza. Sukaldia eskegitokiarekin. Ganbara eta garajea. Ikuspegi ederra. 278.000€.
- ASKATASUN ETORBIDEA: erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Terraza. Ganbara eta garajea. 276.000€.
- FRANTZISKO IBARRA: Duplexa. Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Garajea.
- ZUMARPARKA (TABIRA): Erdi berria. 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Garajea eta trastelekuak.
- SAN IGNAZIO: garaje itxia. 21.000€.

## LOKALAK

- J.A. AGIRRE: 125 m2. Alokairuan edo salgai. Negozioa martxan. 900€.
- TRONPERRI: 60 m2. Egokitua. 530€.
- ARTEKALEA: 80 m2. Alokairuan.
- EZKURDI: Bulegoak. 65 m2. 650€. Alokairuan.
- OIZ: 60 m2. 90.000€.
- ERMODO: 65 m2. Egokitua. Alokairuan.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 40 m2. Egokitua. 450€.
- SASIKOA: 60 m2. Egokitua. 600€.
- IBAIZABAL: 40-100 m2. 400€.



# AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguzten eguerdia baino lehen.



Maiatzaren 17an, 22:30ean, Abadiñoako San Trokaz jaieran

## Lingua Navajorum

Aste honetan Max lehiaketan euskarazko obrarik onenaren saria irabazi du 'Lingua Nabajorum' lanak. Patxo Telleriaren testuan oinarrituriko obra da, eta Mikel Markez eta Telleriak dihardute aktore lanetan, Jokin Oregiren zuzendaritzapean.

### Antzerkia

#### :: DURANGO

Maiatzaren 17an, 22:00etan, Kurutzia ikastolako taldearen eskutik, **Kilonbo**, San Agustinen.

Maiatzaren 18an, 22:00etan, **Kilonbo**, San Agustinen.

Maiatzaren 24an, 22:00etan, La Papa Producciones-en **Las mariposas del estómago no han muerto**, San Agustinen.

#### :: ELORRIO

Maiatzaren 24an, 22:00etan, **El juicio de Dayton**, Arriolan.

### Jaiak

#### :: ABADIÑO (San Trokaz)

Maiatzaren 17an, 17:30ean, **Pirritx, Porrotx eta Mari-motots** probalekuan, eta 22:30ean, **Lingua Navajorum**, probalekuan.

Maiatzaren 18an, 10:00etan, **bizikleta marxa**, Txanportatik. 12:00etan, **Gaztelura kronoigoera eta trialsin erakustaldia**, kanposantu-Gaztelutontor. 14:00etan, **bazkari herrikoia**, Ferialekun. 17:00etan, **San Trokaz pilota txapelketaren finalak**. 20:00etan, **parrillada**, eta 21:00etan, **Luhartz**, Txanportan. 23:30ean, **Trastorno** eta **11 ikusteko jaiok gara**, Txanportan. Ostean **Luhartz**.

Maiatzaren 24an, 17:00etan, **umeentzako tailerrak**, Ferialekun. 22:30ean, **Oskorri**, probalekuan.

#### :: MALLABIA (Kultur Hamabostaldia)

Maiatzaren 17an, 20:30ean, Mendibil eta Jasokunde **abesbatzak**, Ermuko Pispilu eta Alboka musika eskolako **Banda**, Elizan. 21:30ean, **Identitario kolektiboa** **berbaldia**, Herriko Tabernan.

Maiatzaren 18an, 10:30ean, **mendi lasterketa herrikoia**. 14:30ean, **bazkari auto-gestionatua**, frontoian. 17:00etan, **Txan magoa**, plazan. 18:30ean, **truke azoka**, plazan.

Maiatzaren 19an, 10:00etan, **Nekazaritza azoka**, frontoian. 12:30ean, **dantzarien kalejira**, plazatik frontoira. 13:00etan, **Argazki digitalen lehiaketaren sari banaketa**, frontoian.

### Dantza

#### :: ELORRIO

Maiatzaren 17an, 22:00etan, **Cesc Gelabert V.O.+**, Arriolan.

#### :: ZORNOTZA

Maiatzaren 17an, 21:00etan, **Burnia**, Zornotza Aretoan.

### Berbaldia

#### :: DURANGO

Maiatzaren 23an, 19:00etan, **Juan Carlos Lopez Quintana (AGIRI)**, Museon.

Maiatzaren 23an, 19:30ean, **Jon Maia**, Plateruenean.

#### :: ELORRIO

Maiatzaren 23an, 19:30ean, **Etxebizitza eskubidea eta etxe-kaleratzeak**, Iturri kultur etxean.

### Musika

#### :: DURANGO

Maiatzaren 17an, 22:00etan, **Durungaldeko Maketa Lehiaketaren finala**, Plateruenean.

Maiatzaren 18an, 13:00etan, **Kantulagun** kalez kale, Andra Maritik abiatuta.

Maiatzaren 18an, 20:00etan, **Udaberriko kontzertua**, Andra Mariko elizpean.

Maiatzaren 18an, 23:00etan, **Dj Enock**, Plateruenean.

Maiatzaren 24an, 20:00etan, **Combo kontzertuak**, Plateruena Kafe Antzokian.

#### :: MAÑARIA

Maiatzaren 18an, 20:00etan, **Abesbatzen kontzertua**, elizan.

#### :: OTXANDIO

Maiatzaren 19an, 19:00etan, **La Jodedera**, Andikona plazan.

### Bertso-afaria

#### :: MAÑARIA

Maiatzaren 17, 21:00etan, **Anjel Mari Peñagarikano eta Sustrai Colina**, Herrikoan.

### Dokumentala

#### :: DURANGO

Maiatzaren 17, 21:00etan, **'Ez aberastu sionimoa'**, Intxaurre tabernan.



#### :: DURANGO | ZUGAZA

##### 1. aretoa: El gran Gatsby 3D

Zuzendaria: Baz Luhrmann

- barikua 17: 19:30/22:00
- zapatua 18: 19:30/22:30
- domeka 19: 19:30
- astelehena 20: 18:30/21:00
- martitzena 21: 20:00

##### Buscando a Nemo 3D

- zapatua 18: 17:00
- domeka 19: 17:00

##### 2. aretoa: Scary movie 5

Zuzendaria: Malcolm D. Lee

- barikua 17: 19:30
- zapatua 18: 17:00/19:30
- domeka 19: 17:00/19:30
- astelehena 20: 18:30
- martitzena 21: 20:00

##### El gran Gatsby 2D

- barikua 17: 22:00
- zapatua 18: 22:30
- astelehena 20: 21:00
- eguena 23: 20:00

##### ZINEFORUMA

##### Noche de vino y copas

- eguena 23: 20:30

#### :: ELORRIO

##### De óxido y hueso

Zuzendaria: Jacques Audiard

- zapatua 18: 22:30
- domeka 19: 20:00
- astelehena 20: 20:00

#### :: ZORNOTZA

##### La tierra prometida

Zuzendaria: Gus Van Sant

- zapatua 18: 19:30/22:30
- domeka 19: 20:00
- astelehena 20: 20:00

## MAIATZEKO AGENDA



18,19,25,26	<b>IURRETA TXIRRINDULARI ELKARTEA</b> 08:30 Hainbat ibilbide (76-138 km).
18	<b>IURRETAKO KIROL TALDEA</b> 17:00 Iurretako - Gallarta
19	<b>EMAKUMEEN BIRA ZIKLISMO K.E</b> 10:00 Behe Erriberako Udaleko VI. Saria
19	<b>AMOUIR MOTORZALEEN ELKARTEA</b> 10:00 243 km-ko ibilbidea. Iurreta-Lizarrar-Iurreta.
20,21 22,24	<b>HERRI BIBLIOTEKA</b> 20an, 18:15 Emakumeen literatur tailerrak 21ean, Haurren irakurketa kluba: 17:00 8-9 urtekoak. 18:00 9-10 urtekoak 22an, Azalerako ipuinak: 17:00 (0-18). 18:00 (18-36) 24an, Ipuin kontalaria: 17:30 (3-4). 18:00 (5etik gora) 20:00 Helduen ipuin kontalaria (gazt.)
22,29	<b>ANDEREBIDE</b> 18:30 Hitzaldia: Alimentación y salud, Ibarretxen
26	<b>ZALDAI</b> Aizkorri mendi irteera. Ibilbidea: Zegama-Aizkorri, mendi maratokia ikusteko. 07:45ean Aldaparapen. Tel.: 626 74 09 69 - zaldai@hotmail.com
26	<b>BIDEZABAL</b> 10:00 XXXIII. Iurretako Hiri Proba.
27-29	<b>ERAKUSKETA, Ibarretxen</b> 11:00-12:30/17:30-20:00. Eskulanak, margoak, talla...
31	<b>AGERRALDIA, Olaburu frontoian</b> 18:00 Kultur taileren bukaera jaialdia.



Maiatzaren 24an, 22:00etan, Elorrioko Arriolan

## EL JUICIO DE DAYTON

Ikasleei Darwinen eboluzioaren teoria irakasteagatik epaitzen duten maisu gaztearen istorioa kontatzen du Azar Teatrok.

**> ZORION AGURRAK**

✉ zorionak@anboto.org  
eguztzeneko 14:00ak arteko epea



> Zorionak jaio berri den **Izar Etxaniz Onaindiari!** Ama eta aitari ere zorionak eta mosu bana Iurretako familiaren partez.



> Ederra egin du **Albertok...** Jesusek ura ardo bihurtu bazuen, honek kalimotxo egin digu! Hemen iturrian guardia egiten. Zorionak!



> **Naia Legorburu Tazok** 7 urte bete zituen astelehenean. Matienako neskarik jatorrena! Zorion-opariengatik ote? Zorionak eta musu pila bat!



> Eguenean **Andonik** 14 urte beteko ditu. Zorionak eta musu handi bat zure familiaren partez! Afaria... zure kontu?



> Gure neskato ederrak, **Libek**, bederlatzi urte bete ditu, eta pozik ospatu ditu. Zorionak, musu erraldoi eta besarkada itzel batekin!



> Atzo gure etxeko neskatilak 8 urte bete zituen. Zorionak **Amets!** Ondo pasa zapatuko merendolan. Musu handi bat etxekoan partez!



> Laguntzaile itzela euki gendun pasa dan barikuen! Eskerrik asko Nahi! Apirileko Herrira pernilaren zozketako irabazlea Garbiñe Ereñaga izan da. Zorionak eta on egin!



> Maiatzaren 16an gure pototaxuek bi urtetxo bete zituen. Zorionak **Maia!** Asko maite zaitugu! Muuuuuuuuuaa danon partez!



> Zorionak **Angel!** "El alcalde de Bejar". "Hau da nire bidaia-tzeko modua, zuek bidean auto-ilaran geldi zaudeten bitartean, bera lasai asko bazkaltzen dago. Eta geldi jarraitzen duzuen bitartean, ni jada ailegatu naiz trotean".



> "15-Mkoak gara eta hormetatik gora gabiltza! Ez eziguzue ez gure baloirik ez eta gure pentsiorik ikutu, urte bete daramagu-eta Perurenaren harriekin entrenatzen!" Zorionak **Andoni** eta **Joseba** danon partez!



> Gaur gure **Esthertok** 20 urte bete dauz! Zorionak neska haundi! Primeran pasau eguna! Patxo potolo bat zure lagunen partez!



> Maiatzaren 10ean **Eurik** urteak bete zituen. Zorionak etxeko guztion partez! 7 urte bete dozuz konturatu orduko. Andratxo bat eginda zagoz!



> **Aroa Oruesagastik** 2 urtetxo beteko ditu bihar, maiatzak 18. Zorionak eta marrubizko musuak gure etxeko matraka txikiari. Ondo pasa eguna!



> **Nagorek** urteak bete zituen maiatzaren 15ean, **Aitorrek** berriz 14an. Zorionak eta musu potolo bana etxeko guztion partez!



> Bihar **Iratik** urteak betetzen ditu. Zorionak eta ondo pasatu zure egunean! Aitite, amama, izeko, osaba eta lehengusu Enekoren partez!



> **Peiok** astelehenean 16 urte beteko ditu. Segi horrela jatorrena, jatorra eta alai! Mila musu eta zorion familiaren partez eta Karmenen partez!



> Asteartean, maiatzak 14, **Gontzalek** urteak bete ebazan. Zorionak, mosu pilo bat eta besarkada bat etxeko guztion partez!



> Zorionak amama! 1915eko maiatzaren 17tik hona zenbat aldatu diren gauzak! Musu potolo bat zure familia osoaren partez!



> **Auritz Ugaldea**, zorionak zure egunean! Musu handi bat familia osoaren partez eta bereziki Elene, Aitor eta Leirenen partez.



Jose Antonio Agirre, 4 - 94 620 08 69  
Avda. Montevideo, 1 - 94 620 43 83

> Zorionak Ibai Alberdi! Hamabostean behin zotz egin dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzuenean jaso dezakezue gure egoitzan.

**> BOTIKAK**

- BARIKUA, 17**  
09:00-09:00  
• **ETXEBARRIA** (MONTEBIDEO 2 - DURANGO)  
09:00-22:00  
• **JAIO-OLABARRIETA** (ERREKA 6 - ELORRIO)
- ZAPATUA, 18**  
09:00-09:00  
• **IRIGOIEN** (BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA)  
09:00-13:30  
• **BAZAN DIAZ** (URIBARRI 5 - DURANGO)  
• **CAMPILLO** (MONTEBIDEO 24 - DURANGO)  
• **NAVARRO** (ARTEKALEA 6 - DURANGO)  
• **BALENCIAGA** (EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO)  
• **UNAMUNZAGA** (MURUETATORRE 2C - DURANGO)  
• **SAGASTIZABAL**  
(ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO)  
• **DE DIEGO** (INTXAURRONGO 22 - DURANGO)  
• **JAIO-OLABARRIETA** (ERREKA 6 - ELORRIO)  
• **URIZAR** (GABIOLA 2 - BERRIZ)
- DOMEKA, 19**  
09:00-09:00  
• **BAZAN DIAZ** (URIBARRI 5 - DURANGO)
- ASTELEHENA, 20**  
09:00-09:00  
• **UNAMUNZAGA** (MURUETATORRE 2C - DURANGO)
- MARTITZENA, 21**  
09:00-09:00  
• **BALENCIAGA** (EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO)
- EGUAZTENA, 22**  
09:00-09:00  
• **CAMPILLO** (MONTEBIDEO 24 - DURANGO)  
09:00-22:00  
• **LARRAÑAGA-BALENCIAGA** (BERRIO OTXOA 6 - ELORRIO)
- EGUENA, 23**  
09:00-09:00  
• **DE DIEGO** (INTXAURRONGO 22 - DURANGO)

**> TELEFONO INTERESGARRIAK**

- SOS Deiak ..... 112  
Gurutze Gorria ..... 94 681 09 49  
Osakidetza ..... 94 600 72 00  
Ertzaintza ..... 94 466 93 00

**> GARRIAOAK**

- Euskotren ..... 902 54 32 10  
Bizkaibus ..... 94 448 40 80  
Pesa ..... 902 10 12 10  
Continental Auto ..... 945 286 466

**> TAXIAK**

- Abadiño ..... 94 681 44 70  
Matiena ..... 606 459 988  
Durango Geltokia ..... 94 681 10 01  
Elorrio Geltokia ..... 94 682 00 40  
J.L. Uriarte ..... 670 402 002  
I. Estebez ..... 670 678 273  
M. Galeano ..... 670 409 330  
Iurreta ..... 94 620 15 65  
Taxi auzunea ..... 688 618 690  
Berrizko auzo taxia .. 620 022 800

**> EGURALDIA**

8° 15° ZAPATUA		7° 15° DOMEKA	
9° 18° ASTELEHENA		10° 18° MARTITZENA	

**> AZOKA-BASERRITIK-PLAZARA**

**Abadiño (Traña-Matiena)**  
Eguaztetenan  
10:00etatik aurrera  
**Durango**  
Zapatu goizetan  
**Zornotza**  
Domeka goizetan

**ASTEKO SALNEURRIAK:**

Letxuga ..... 0,80 euro  
Letxuga haritz hostoa ..... 1 euro  
Azelga ..... 2 euro/kg  
Espinaka txorta ..... 1,20 txorta  
Berakatz freskoa ..... 1,50 txorta  
Ilarrak ..... 6 euro/kg  
Tomate kontserba ..... 3,90 euro/potea  
Arrautzak ..... 3,80 euro/dz  
Idiazabal gazta ..... 17 euro/kg  
Gari integraleko ogia ..... 3,30 euro

# “Sua bizitza mantentzen denaren seinale izan da kultura guztietan”

Tailurako zaletasunak argizaiolen historiara erakarri du Alberto Barrondo; 34 erreplika ditu eginak

## > AMAIA UGALDE

**Harria eta egurra lantzen orduak pasatzen ditu Alberto Barrondo otxandiarrak. Oletan, bere etxeko atarian, eguzkilore bat dauka harrian landuta, eta auzorako iturri bat ere egin du. Egurrean argizaiolak lantzen hasi zen duela lau urte, eta 34 bat ditu eginak. Otxandion erakusketan ipini ditu. Erakusketagaz, hain ezaguna ez den argizaiolaren historia eta zentzua azaldu gura izan ditu.**

## Zelan hurreratu zinen argizaiolen mundura?

Taillarako afizioa daukat, eta Luis Pedro Peña Santiagoren *La argizaiola vasca* liburua topatu nuen duela hamabost urte. Orain dela lau urte hasi nintzen liburuko marrazkietatik erreplikak egiten, eta horretan nabil. Arte objektu moduan erabiltzen da gaur egun, baina daukan zentzuagatik ere interesatu nintzen.

## Zer esangura izan zuten argizaiolek?

Konturatzen bazara, hasierakoek batez ere, gorputz forma zeukaten. Familian pertsona bat hiltzen zenean, pertsona hori baserrian ez zegoenez, argizaiolaren formak hildako pertsona irudikatzen zuen, eta pertsonaren arima irudikatzen zuen isiotutako argizariak. Familiako bat hiltzen zenean, meza orduetan isiotzen zuten, urte bat edo bian. Etxekoandrea izaten zen isiotzeko arduraduna, eta bera ez bazegoen, ondoko baserriko etxekoandrea arduratzen zen. Elizan, umeak eta gizonak aurrean jartzen ziren, eta andrak atzean, argizaiolagaz.

## Urteekin asko aldatu ziren. Lehenengotan, marrazki asko

zeukaten. Ez dago marrazkion inguruko informaziorik; behar bada edukiko dute zentzuren bat, baina ez dakigu zein. Pertsonen forma dute, hasierakoek, batez ere. Lehenengotan, marrazki asko daukate, eta gero, astiro-astiro forma galdu zuten, eta azkeneko argizaiolak ohol karratu bat dira. Esaten dute forma aldatzearen arrazoi bat lapurretak izan daitezkeela. Meza denboran isiotzen zituzten, eta gero elizan geratzen ziren, izkina batean. Forma sinpleagoekin suaren zentzua mantendu zen, baina ez zen hain erakargarria.

## Suak aspalditik eduki du heriotzagaz lotura...

Bai. Kultura guztietan dira sua eta argia bizitza mantentzen denaren seinale. Astiro-astiro argizaiolak kentzen joan arren, elizak mantendu du suaren sinbologia zirioekin, eta gero, kandela bakarrarekin ere bai.

## Noiz arte mantendu zen argizaiolen ohitura?

XVIII. mendera arte. Gaur egun, leku bakarrean mantentzen da: Amezketan. Oso arraroa da; beste leku guztietan apurka-apurka kendu zituzten, baina han mantendu egin dute, ez dakit zergatik. Abadea edo herrikoak burugogor jarriko ziren edo! Data konkretu batzutan isiotzen dituzte, Aste Santuan-eta.

## Hemen inguruan ere erabiltzen ziren?

Aspaldi bai. Erakusketara etorri ziren nagusiekin berba egin nuen, baina



ez dira akordatzen. Nire ama bai, gogoratzen da. Zeanuriko auzo txiki batekoa da, eta han geroago galduko zen, antza. Argizaiolen historia hain ezezaguna dela ikusita, nire helburua izan da erakusketan horren zentzua azaltzea.

## Argizaiola Euskal Herrian egon da bakarrik?

Bai. Esaten dute antzeko lotura eta zentzua daukela Iparraldeko hilobietako hilarri borobilek, sinbologian zentzu bera dutela.

## Honezkeroko 34 argizaiolen erreplikak egin dituzu. Engantxatu egiten du ala? Afizioa daukat eta...

Gero, beste lan batzuk egiten ditut: oholetako eguzkiloreak, adibidez. Harrian ere egin dut etxaurrerako eguzkilorea. Oletako plazan dagoen iturria ere neuk egin nuen. Orain, lanteria zarratu da, eta langabezian geratu garenez, denbora libre daukat...

## Jendeak eskatzen dizu halako lanik?

Beno, zer edo zertxo bai. Gabonetan, postutxo bat ipini nuen hemengo azokan, eta polito, harrizko lan batzuk ere egin nituen...

## Orain momentuan, zer daukazu esku artean?

Argizaiolak egiten jarraituko dut, eta beste zer edo zer etorriko da, materiala badaukat etxean. Ikusiko dut.

## LAUHORTZA

JASONE AGIRRE

Kazetaria



## Maitasuna, sexua eta “Kirmen” bat

Maitasunaz, eta maitasunez, berba egitera natorkizu, irakurle, eta ez txarto ulertu, arren, hau ez da eta “Sex in New York”-eko protagonista-zen zutabeak bezalakoa izango. Bestelako maitasuna da hau; lehengoan, *Anbotoren* 500. alea ospatu genuen egunean, hizpide izan nuena.

Maitasuna ez dela simetrikoa, hartu-emanetan beti batek besteak baino gehiago ematen duela esan nuen. Kirmen Uriberen nobela berritik hartu nuen esaldi hori. Gero, Uriberi berari irakurri diot esaldia ez dela berea, hil berri zaion adiskidearena baino, Joxean Lizarribarrena. Horrekin esan gura izan nuen *Anbotorekin* geuk denok daukagun maitasun harremana simetrikoagoa izan behar litzatekeela, batzuek asko eman izan dutelako eta jaso, oster, ez hainbeste.

Eta honezkeroko, irakurle, konturatuta egongo zara gaurkorako aukeratu dudana izenburua adarjotze txikitxo bat dela. Zeu erakartzeko, edo “seduzitzeko” erabili ditut berba horiek, maitasunak, sexuak eta “Kirmenek” egundo ez baitute hutsik egiten. Euren bidez, lerro honetaraino ekarri gura izan zaitut, neure *Anboto* partikularrera, hemendik eskerrak eman nahi dizkizudalako, 500 aleotan hor egonda asko eman diozulako *Anbotori*, zuri esker maitasun istorio hau askoz ere simetrikoagoa delako.

www.aki.es

**DURANGO**  
Maiatzak 23

**ADI, IREKITZERA GOAZI!**

AKÍ DURANGO - BI-2632 - Montorreta kalea

Brikolajea • Lorezaintza • Dekorazioa



**€19,95**

Zulagailu kolpatzailea  
710 W SKIL

